



Landareak → 2 - 3

Elkar.: Jakoba ERREKONDO

BERA → 11

Gerrako fusilatu eta desagertuak gogoan

SUNBILLA → 17

Kantu Zaharren II. Eguna martxoaren 9an kanpinear

BAZTAN → 32

Lore Jokoetarako literatur lehiaketa antolatu dute

ZUGARRAMURDI → 36

Luthier tailerra ireki du Xabi Luberriagak

Ttipi Txartela izatea harpidetza soila baino merkeago da

ERREPORTAJEA → 4-5

TTIPI TXARTELArengatik 40 €ordaintzen bada ere, urtearen buruan kontuak egin ondotik, harpidetzarengatik ordaintzen diren 34 euroak baino merkeago ateratzen da, errenta-aitorpena egiterakoan 10€ itzuliko baitio Nafarroako Gobernuak txarteldunari.

Eta ez hori bakarrik; zenbat eta gehiago erabili dendetan, orduan eta irabazi handiagoak ditu txarteldunak deskontuei esker.



Adibidez, Elizondoko Giltxaurdi igerilekura norbait bazkide egitera TTIPI TXARTELArekin etortzen baldin bada, matrikula kuota %50eko deskontua izanen du.

Luis Alberto DURÁN | GILTXAURDI IGERILEKUA

BERTSOLARI TXAPELKETA → 26

Azkeneko txanpan sartua

Final aurrekoei dagokionez, martxoaren 2an Atarrabian, 3an Etxarri-Aranazen eta 9an Elizondoko Lur aretoan ariko dira. Finala martxoaren 23an Anaitasunan.

Jarduera ugari emakumearen eguna dela eta

Era guztietako jarduerak programatu dituzte martxo hasieran udal eta mankomunitate desberdinen eskutik; hitzaldiak, erakusketa, mendi ibilaldiak...



ARGAZKIA: UTZITAKOIA

Patxi Vila txirrindulari beratarrari omenaldia egin diote asteburu honetan herritar eta lagunek → 40

ZOKKETAK → 48



Txartela egiteko deitu **948 63 54 58** telefonora



ttipi-ttapa fundazioak

www.cajanavarra.com

Proiektu zk: 50063

Nafarroan eroldatutako 18 urtetik gorako guztiak parte har dezakete

zure laguntza behar du

ZUK AUKERATU ZUK ERABAKI 2013

comunal castarvata

Landiflor

Loredenda



Udaberria dator, Presta zaituz!

aukera paregabea Landiflor loredendan



Dipladeniak



Geranioak

Eskaintza
zabala
denboraldiko
lore, landare...

Eta baita fruta
arboletan ere



Sagerindoa



Muxikondoa



Gerezindoa



Udareondoa



Aranondoa

Lore ontzi,
lur ongari
eta lorategi
osagarriak
zuen esku



Venta Peio fidelitasun txartelak Landiflorren ere balio du.

Landiflor zure loredenda egunero irekia: 9.30 - 12.30 / 13.30 - 19.00

Barrio Dantxarinea 31712 URDAZUBI / landiflor@ventapeio.com

Dantxarinea Ibaridin Valcarlos Behobia

www.venta-peio.com ☎ 0820 562 267 (fr) ☎ (+34) 902 210 800 (es) (ext: 612)

LOREAK ETA LANDAREAK



Argazkia: Dani Blanco - ARGIA

Jakoba ERREKONDO

Agronomo eta paisajista

«Martxoko ilbehera garai egokia da arbolak kimatu eta adaxka horiekin gero txertaketak egiteko»

Urte sasoi honetan zer egiteko garaia da?

Martxoan lurra berotzen hasiko denez, udaberrira begirako lanak egin behar ditugu. Lurra prestatzen bukatu, lurra irauli eta azken karezteak egiteko garaia da. Ilarrak eta babak jartzeko azkeneko aukera ere orain izanen da. Goizeko patata lantzen ere hasiko ginateke eta lehenengo letxuga, tipula eta espinakei ere tokia egin behar zaie. Azenarioa eta perrexila ereiteko momentua ere bada. Fruta arbolak landatzeko berandutxo da dagoeneko, baina txertaketak egiteko garai aproposa da.

Zehazki noiz kimatu eta txertatu behar dira?

Martxoko ilbehera, momendu egokia da kimaketak egiteko. Hor ateratzen ditugun adaxkak erabili ditzakegu ugalketak edo txertoak egiteko. Oso goiz lotatzen diren zuhaitzen txertoak otsailean egin behar ditugu, baina berandu lotatzen direnenak martxoan. Sagarrak, udareak... beraz, denak martxoko ilbeheran egin behar dira.

Azken aldiko prezipitazioek ondorioz ekarri dute?

Gehiegizko hezetasuna beti da kaltegarria. Euriteak gertatu aurretik, horrelako egoerak etor daitezkeela pentsatu behar dugu eta irtenbidea beti prest eduki. Drainatzeak, erreka estaliak, aldapan lana egitea, kosken gainean landareak jartzea... hartu beharreko neurrietako batzuk dira. Lurrari karea ematea ere komeni da. Fruta-arbolak jartzen ditugunean ere beti izan behar dugu kontuan hezetasuna. Eguzkia sartzen den tokian landatu, tartekak utzi baten eta besteen artean. Hezetasun horri ihes egitea tantoaren erdia irabaztea da. Planifikazio handia eskatzen duen lana da, baina beharrezkoa, baratze eta lorategi osasuntsuak edukitzekotan.

Zomorro eta moluskoek ere buruhausteak eragiten dituzte...

Askok uste dute horiek direla landare eta fruta-arbolen etsairik handienak, begien bistan egoten direlako. Esan bezala, nire ustez, hezetasunarena arazo larriagoa da, konpontzeko ere zailagoa. Zomorro, barraskilo, bareak... aurka burroka fisikoa egiten da eta baliabide asko ditugu arazoa konpontzeko.

Zeintzuk dira baliabide horiek?

Pozoi kimikora jotzen dute askok baina naturarekin hain erasokorrek ez diren irtenbide ugari daude. Teila da onena. Landare artean teilak jarri, bizkarrez gora, itzala eskainiz. Zomorro eta moluskoak bilduko dira bertara. Handik jaso eta arazoa konpondurik dago. Teila erakargarriago egiteko gustuko duten guztizariaren bat jar daiteke teilan: laranja-azala, limoi-azala, patata-azala... edo garagardoa. Ontzi bat garagardoz ia beteta lurrean sartu eta ahoa lurrazalaren parean jartzen bada, barraskilo eta bareak garagardotara joango dira eta bertan itoko dira. Garagardoa euritan urtu ez dadin, eta ontzia aho ertzeraino bete ez dadin, hori ere teilaz estaltzea da irtenbidea. Teilak erabili beharrean, arrautza azalak txikitu eta landare aldatu berrien artean zabaldu litezke.

«Hezetasunak eraginda gaitzak eta ahuldadea izaten dituzte landare eta fruta-arbolek».

MENDI LANAK • ESKABAZIOAK • GARRAIOAK
ZERRAKURAK • GARBITZE MEKANIKOAK
ZERRAKURA, LUBERRI ETA BELAGIEN
MANTENIMENDUA

Leku-Eder, Buzte - 31791 SUNGILLA - altxuri@yahoo.es
Tel/Fax: 948 450 504 - 657 667 267 - 699 461 394

SU EGURRA SALDAI: xehebia eta lotetan

Carlos Txoperena
mendi garbiketak eta landaketak
ITXITURAK

Tel: 948 637 477
637 466 124
LESAKA

basartea
lurraldea | ingurumena

Ingurugiro eta basoen proiektu eta ikerketak

Ezkabarte industrialdea, M1
31194 ARRE (Nafarroa)
T. 948 196 453 | F. 948 196 351
basartea@basartea.com
www.basartea.com

«TELLETXEA»
Lorazaintza

Paisajismoa
Lorategiak Diseinatzea eta Sortzea
Ureztatze Sistema Automatikoak
Kimaketak
Mantentzea lanak

John Telletxea
Nekazar Ingeniari Teknikoa
Otxangoko Industrialdea, 18, industria-nabea
31770 LESAKA (Nafarroa)
T. 619 418 683 - F. 948 637 049
johntelletxea@hotmail.com

www.telletxealozaintza.com

Txartela izatea harpidetza soila baino merkeago da



Aurten honelakoak izanen dira txartelak

TTIPI-TTAPA laguntzeak badu saria. TTIPI TXARTELA dutenek badituzte deskontuak gure herrietako hainbat dendetan, %25eko desgrabazioa Errenta-Aitorpenean, hamabostero zozketak eta... aldizkaria etxean hartzea Txartelaren prezioan sartua dago.

Laguntza laguntzaren truk. Ideia hori dago Ttipi Txartelaren atzean. TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAREN helburua ahalik eta bazkide gehien

lortzea da eta, dagoeneko, kasik zazpirehunek aprobetxatzen dituzte Ttipi Txartelak eskaintzen dituen abantailak.

bitzuetan kontsumitzerara animatzea da Txartelaren helburuetakobat. Horiexek ematen baitiote bizitza gure herriei eta horiexek baitira TTIPI-TTAPA bezalako proiektu tikien laguntzailerik baliosuenak. Hor ageri da zenbatearaino den garrantzitsua hemengo denda eta zerbitzuetan kontsumitzea. Maiz kanpoko ofertak begiratzen ditugu, baina herrietan ere produktu onak daude eta prezioak berdintsuak dira.

MARTXOAN BIDLIKO DIRA TXARTEL BERRIAK

Txarteldunek otsailan hartu dute karta bat ea berri nahi duten galdetuz eta kartarekin batera, iaz ordaindutako kopuruak Errenta Aitorpenean ekarri dien desgrabazioa zehazten duen ziurtagiria. Txartel bakarra duenak 40 euro ordaindu zituen iaz, eta desgrabazioa %25ekoa dela kontuan hartuta, 10 euro itzuliko dio aurten Nafarroako Gobernuak.

ttipi-ttapa

Txartela egiteko biderik errazena TTIPI-TTAPAra deitzea da (948635458) eta hor beharadina argibide emanen dira. Dena den, laburbilduz, hona hemen oinarritzko azalpenak: Ttipi Txartela urtero berritzen da, pertsonala da (erabiltzailearen izen-

deiturak eta karnetaren zenbakia ditu idatziak), dendaren batean erabiltzerakoan Txartelarekin batera Nortasun Agiria ere erakutsi behar da eta hainbat tokitan urtean zehar deskontu interesgarriak izateko eskubidea ematen du, merkealdi sasoiak izan ezik. Deskontuak

eskaintzen dituzten dendak zein diren jakiteko eta horietako bakoitzean deskontu zer den eta zenbatekoa den ikusteko, txartelarekin batera liburuxka bat bidaltzen da etxera informazio zehatzarekin.

HEMENGO DENDAK
Herriko denda eta zer-

TTIPI TXARTELA DENDA ETA ZERBITZU HAUETAN ERABILTZEN AHAL DA, ORAINGOZ. LITEKEENA DA URTEAN ZEHAR GEHIAGO ERE IZATEA

AUTO TAILERRAK BERAUTO (BERA) %3 amakarioetan DATUCELAY (ELIZONDO) %10 batera eta amakarioetan BANSINENA (ELIZONDO) %5 olio aldatzean ZALAIN MOTOR (BERA) %5 amakarioetan	BIZIKLETA TAILERRAK KATEA-BIKE (BERA) %5 konponketetan	KIROLDEGIAK GILTZAURDI UDAL KIROL INSTALAZIOAK (ELIZONDO) %50eko deskontua matrakulan, Buztintza (gubernetu eta oro kalentze irabazteko diru berrak) LESAKAKO UDAL KIROLDEGIA (LESAKA) (Hiruak 31 urte) Pertsona 1: %10 matrakulan, 2 pertsona: 1go pertsona matrakulan doan, bigarrena hiru berrak bat doan.	NUTRIZIOA ETA DIETETIKA OREKA (LESAKA) %5 kontsulta eta produktu KIMETZ (DONEZTEBE) %5 kosmetikan ELIKA (BERA) %5 kontsultan
AUTODESKOLAK SEMPER (BERA / LESAKA) %10 matrakulan	ESTETIKA ZENTRUAK AMAIA (DONEZTEBE) %5 kosmetikan eta %10 oinarritan SIKKIK gora. Promozioetan ez ARRATE (DONEZTEBE) %10 "Skandor Elarna" kremetan	KIROL-DENDAK AGARA (BERA) %5 kirol artikuluetan IPARLA (ELIZONDO) %8, 300tk gora ZELA (BERA) %5 deskontua	OPARI-DENDAK ALUSTIZA (DONEZTEBE) %10, 300tk gora
ARGAZKI-DENDAK GOIKO (BERA) %10 kapa digitaletan MENA (ELIZONDO) %10 kop. digital ZALDUA (DONEZTEBE / ELIZONDO) %10 produktuetan	ETXETRESNAK ALTZURI (LESAKA) %5 etxetresnetan	LENTZERIAK KATTAGORRIA (LESAKA) %10 lentzen MARICHUZ (DONEZTEBE - ELIZONDO) %10, 300tk gorako gertan	OPTIKAK INTZURI (LESAKA) %10 produktu guztian OSTAROI (BERA) %5eko deskontua
ARROPA-DENDAK BIKKIARI (LESAKA) %10 deskontua EDURNE (BERA) %5, 300tk gora FANTXIKE (ELIZONDO) %10, 300tk gora IPINGI (ELIZONDO) %10, 300tk gora JUAN J. PIKABEA (DONEZTEBE) %10, marka berriztatzen izan ezik KATTALINGORRI (ELIZONDO) %10 des. KUKUKA (DONEZTEBE) %10 pijama eta banuko anopetan	FOTOKOPIAK/INPRENTA BORTZIRUDI (BERA) kopiatu, erreproduziorik eta inprenta zerbitzu lanetan Inprim. berrak %5 desk. 50tk gora	LIBURU-DENDAK NAFARPRESS (ELIZONDO) %10 liburu eta ikas materialak, testu liburuak eta bideoak ezik MAMUR (LEITZA) %10 oparitzeko artikuluetan	PENTSUAK MENDAJUR (DONEZTEBE) %5 zakur eta katu pentsetan
HAURREN GAUZAK POTTOKI (ELIZONDO) %5 oparitzeko artikuluetan	JATETXEA POSADA OITZ (OITZ) %10 deskontua ELBETEKO POSADA (ELBETE) %10 karta, 300tk gorako gastuan	TINDATEGIAK JAIONE (DONEZTEBE) %10 120tk gora	ZAPATA-DENDAK OSTIZ (DONEZTEBE) %10 oinetakoetan TXINELKA (LESAKA) %10 deskontua ZANGUE (ELIZONDO) %10 deskontua

ABANTAILA HANDIAK DITUEN TXARTELA

TTIPI TXARTELA izatea harpidetza soilik izatea baino merkeago ateratzen da eta deskontuak dituzten tokietan zenbat eta gehiago erabili, berrogei euro baino aisa gehiago berreskuratuko dira

TTIPI TXARTELA arengatik 40 € ordaintzen bada ere, urtearen buruan kontuak egin ondotik, harpidetzarengatik ordaintzen diren 34 euroak baino merkeago ateratzen da txartelduna izatea, errenta-aitorpena egiterakoan 10 € itzuliko baitio Nafarroako Gobernuak txarteldunari.

Eta ez hori bakarrik; zenbat eta gehiago erabili dendetan, orduan eta irabazi handiagoak ditu txarteldunak deskontuei esker.

Bistan denez, abantaila ez da bakarrik txartela erosten duenarentzat. Tartean onuradun gehiago daude. Lehenik eta behin Ttipi-Ttapa Fundazioa bera. Zenbat eta txarteldun gehiago izan orduan eta sendoagoa izanen baita bere autonomia ekonomikoa eta hori, gaur den egunean diru-laguntzak gero eta urriagoak diren honetan, izugarri inportantea da bizirik irauteko. Eta onuradunen artean kontatu behar dira deskontuak eskaintzen dituzten denda eta zerbitzuak ere, bezeroak fidelizatzen edota bereganatzeko baliagarri baitaie Ttipi Txartela.

HAMABOSTERO SARI INTERESGARRIEN ZOZKETAK

TTIPI-TTAPARI laguntza ematen dioten hainbat enpresa eta erakunde esker, txarteldunen artean hamabostero hainbat sari interesgarri zozketatuko dira aurten ere. Hala nola, **Martikoren** eta **Arkupe Gozotegia** ren produktuz osatutako loteak, **Oninart** eta **Onddotapuntoren** arropak, **Elkar**, **Erein**, **Ibaizabal** eta **Tartalo** argitaletxeek eskainitako liburuak, **Lanku**, **Katxiporreta** eta **Urtxin-txa** Eskolaren CD, DVD eta jokuak, **Donostiako Aquarium**, **Naf. Bertsozale Elkartea** eta **Zugarramurdiko Lezeak** oparitutako sarrerak, **Posada Oitzek** eskainitako 4 otordu eta **Urdi Kiroldegiak** eskainitako sarrerak: 12 sarrera urtean zehar Lesakako Udal Kiroldegirako eta 6 sarrera udan Berako Igerilekuan sartzeko. Hauexek dira orain arte lotu diren sariak. Urtean zehar joan gara zehazten sari berri gehiago.

DAUDEN AUKEREN ARTETIK, BATZUK HEMEN



ELBETEKO POSADA | ELBETE

Otordu goxo bat kartan egin nahi dutenentzat %10eko deskontua dute Ttipi Txarteldunek 30 eurotik gorako gastuan.



OSTIZ ZAPATA-DENDA | DONEZTEBE

Oinetako guztietan %10eko deskontua eskaintzen du Doneztebeko Ostizek, berdin kirol oinetakoak edo bertzelakoetan.



JUAN J. PIKABEA | DONEZTEBE

Doneztebeko arropa-denda honetan %10eko deskontua dute txarteldunek gizonezkoendako arropetan, marka batzuetan izan ezik.



KATTAGORRIA | LESAKA

Lesakako denda honetan ere %10eko deskontua dute txarteldunek barneko arropa edo lenterriako produktuetan.



SANSIÑENA | ELIZONDO

Autoaren olioak aldatu beharrean dagoen txarteldunak %5eko deskontua izanen du Elizondoko Sansiñenan.



ZELA KIROLAK | BERA

Berako denda honetan %5eko deskontua dute txarteldunek kirol arropa eta artikuluetan, merkealdi garaian izan ezik.



Nire txanda
Fernando ANBUSTEGI

Di misioa

Di aurrizkiak, grekeraz bi erran nahi du. Hor-
tik, dimisio hitzak bi misio erran nahiko du?
Aita Saindua hartuko dut gaurko gogoeta-
ko ardatz gisa. Hautatu zutenetik bi misio bete di-
tu nonbait, dimisioa aurkeztu baitu. Batetik, nere
uste beharbada ankerraren arabera, bere karrera
gorenera eraman nahi zuen, eta bertzetik eliza be-
re ideien arabera goberna-
tu. Nonbait bete ditu bere
bi misioak eta dimisioa aur-
keztu du. Bejondeiola!
Ez naiz Aita Saindu zalea,
baina eredugarria izan dai-
tekeela uste dut, hamaika
politikariri bidea erakuste-
ko eredugarria. Izan ere,
politikariek, gure inguru-
koek bederen, ez dituzte
inoiz beren misioak bete-
tzen, ez baitute dimisiorik
aurkezten. Edo, agian misio bakarra izanen dute
eta ezin dimisiora ailegatu? Eta hala bada, zein da
beren misioa? Argi dago, DIMISIOA!

«Ez naiz Aita
Saindu zalea,
baina eredugarria
izan daitekeela
uste dut, hamaika
politikariri bidea
erakusteko
eredugarria»

Ezpala
Aitor AROTZENA

10 urte Egunkaririk gabe

Lehenago Egin egunkariarekin egin zuten beza-
laxe, gero Egunkariarekin egin zuten... Sartu,
dena hankaz goiti paratu, arduradunak atxilo-
tu eta xehatu, urratu, itxi... Dena ETA zeneko garai
ilunean, porra libre! Ez omen zen adierazpen askata-
sunaren kontrako erasoia izan, ez omen euskararen
kontrako oldarraldia. Kargurik gabe libratu zituzten
arduradunak, baina Egunkariaren berririk ez dugu.

Nabarmentzekoak



Iciar MIKELPERIZENA
Turismoa artelanen artean

Sunbillan bizi den mar-
golari beratarren lanak
ikusgai daude Oizko
Martiornia landetxean.
Turistei artelanen artean
amets egiteko aukera
eskaintzen zaie Rakel
Ariztegiren etxean.



Patxi VILA ERRANDONEA
Berako txirindularia omendua

Herritarren omenaldia
jaso du asteburu hone-
tan Patxi Vila txirindu-
lari ohiak. Argazki er-
akusketa, bideo ema-
naldi, solasaldi eta bizik-
leta ibilaldi batekin oho-
ratu dute sorterrian.



Jean Pierre SOUDRE
Senpereko bertsolaria hil da

Otsailaren 5ean hil zen
Larreko bertsolari sen-
perarra, 88 urte zituela.
Herritarrek omenaldi
hunkigarria eta sentitua
eskaini zioten *Senper-
tarrak gare* kantu eza-
gunaren egileari.

Atzera begira → 2003.02.20 / TTIPI-TTAPA 344 zbk.



Baztan Likoreak ezagutzuz Luis Miguel Lameriñas-ekin

Bertako lehengaiekin egindako edariak mahaingurua goxatzeko. Izenburu ho-
ri eman zion TTIPI-TTAPAK duela hamar urte Arizkungo Baztan Likoreak enpre-
sa ezagutzeko egindako erreportajeari. Luis Miguel Lameriñasek eman zigun
enpresaren berri eta berak erran zigunez, «Madrileko Fitur ferian Nafarroa or-
dezkatu du gure *sorgin saldak*, mandragora edo urrilo likoreak». Urrilo likoreaz
gain, feijoa, patxaka, patxarana, te beltza, menta, erregaliza, kamamila, pastis
aperitifa, sagar berdea, melokotoia eta moskatela komertzializatzen zuen
1995ean sortu eta zortzi langile enplegatzen zituen Baztan Likoreak enpresak.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Martin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administratzailea** Amaia Goia
Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdioko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2013ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria40€	Europa59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka34€
Ipar Euskal Herria59,50€	Amerika eta Australia124€	Leitza17€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Bortziritako Euskara
Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

Etnografia Museoa

Joseba URRUTZ

Seguraski jakinen duzue zer aurki daitekeen etnografia museo batean; normalean garai bateko bizimodua erakusten duten lanabes eta objektuen bilduma bat izaten da.

Errate baterako, Artetako museoan Erdiarotik hasi eta 1930-1940 hamarkadan makinismo automatizatua agertu zen arteko gauzak; arte lanak, burdingintza, buztingintza eta abar. Han izanen dira, seguraski, lurra lantzeko lanabesak, janaria prestatzeko ontziak, arropak, eta abar. Ikusgarriak, ederrak, edo harrigarriak iduritzen zaizkigunak. Noski, gu bizi garen garaia 'oraina' baldin bada, gisa hortako museo batean 'iragana' ikus dezakegu. Baina hori bai orain, 'oraina' dena, gero, 'iragana' izanen da, alegia, historiak segitzen badu, gu ez gara historiaren erdigune edo zentrua izanen...

Orduan, gure garaia kokatzeko, begira dezagun historia nola sailkatzen den, (eskerrak internet): Historiaurrea: gizakia agertu zenetik idazten hasi zen arte, 700.000 mila urte inguru.

Aitzin Aroa: duela 3.000 urtetik, seigarren mende arte, 3.600 bat urte.

Erdi Aroa: VI. mendetik, XV. Mende azken arte, 1.500 bat urte.

Aro Modernoa: XV. mende hondarretik, 1789 arte, 300 urte azpitik.

Aro Garaikidea: Frantziar Iraultzatik gaur arte, 200 urte pasa.

Zenbaki hauekin, ondorio bat bederen atera dezakegu: arotan banatzen diren tartearak gero eta tikiagoak direla, gero eta urte guttiagokin aldatzen da aroa. Gauzak azkar aldatzen dira.

Orduan, hemendik 100 bat urtera, erakutsiko al dute gure gaurko bizimodua Etnografia Museotan? Zein gauza ditu gure garaiak adierazgarri?

Nik ero xamarra irudikatzen dut. Automobila ezin falta: Citroen C15 edo BMW bat errate baterako; Telefono mugikorak: Nokia, Apple iPhone; noski, motozerrak: Stihl, Husqvarna, traktoreak, asto mekanikoak eta abar. Plasma-telebista, PlayStation, edo lasterka egiteko zinta. Komunikazio eredu bezala WhatsApp-a; iduzkitako antiojuak, sofak...

Gauza ederrak edo interesgarriak? Hori ikusi behar duenak seguru gure bizkar irri eginen duela! Aro bitxian bizi gara bai, oraingoz XXI. mendea du izena, bertzerik ez. Auskalo nora goazen!

«Gauza ederrak edo interesgarriak? Hori ikusi behar duenak seguru gure bizkar irri eginen duela! Aro bitxian bizi gara bai, oraingoz XXI. mendea du izena, bertzerik ez. Auskalo nora goazen!».

Kolorezko diskurtso isila

Joseba URKIOLA

Blancanieves pelikula izan da Goya sarietako garaile nagusia, Pablo Berger zuzendari bilbotarraren lanak 10 sari eskuratu ditu. 2012an "The Artist" filma izan zen Oscar sarietan urrez zipzintu zena, atentzio gehien beretu zuena.

Bi lan hauek dezente dute antzekotik eta asko zer aztertzeko. Zuria eta beltza dira istorio bien mundu partikularretako koloreak. Mendiaren berdetasunak ez du zentzurik, itsasoaren urdintasuna ez da existitzen. Ostadarraren zazpi koloreak utopiaren pentsamendu lizuntzat har daitezke. Egunerokotasuna beltza da bi gidoietan, positibotasuna zuriak eskaini dezakeen argitasunarekin irudikatzen da. Soinu bandek berebiziko garrantzia daukatela ezin inolaz ere ukatu. Abestiak osatzeko erabilitako pentagrama, nota eta melodiak dira hitz gabeko diskurtsoa josten dutenak. Bi lanak mutuak izaki; elea doinuak ordezkatzeko du eta berba asko arpegiko keinu ttipien edota gorputz mugimenduen menpe daude.

Hotzean pentsatzen jarrita, norbanakoari zer hausnartu handia sor diezaioketen obrak dira biak. Possible ote da hitzik gabeko unibertso zuri-beltz batean bizitzea? Egungo mundua ustez ultramoderna izanagatik, Charles Chaplinen itzalak indarrean dirauela ematen du. Sariak jaso edota zinematik betetzerakoan ez dute bi pelikulek inolako arazorik izan; baina nolako ote da pentsatutakoa esan nahi eta ezin plazaratu daitekeen errealitate krudel hori?

Batzuentzat deserria behar du izan. Beltzetik zuritik baino askoz ere gehiago duen gune partikularra. Askok ederki gorputzu ahal izango dute dendetako erakuslehoetako manikiek eduki dezaketzen sentsazioa. Gizartea maniki horien guztien aurrean erritmo geldiezinean aurrera doan bitartean, beraiek zail dute partaide izatea. Nahi eta ezina nagusi dira. Chaplinek umore ikutua ezartzen zion egoerari, baina sakoneran festa eta poztasunetik gutxi du aferak. Hitz, hots eta imintziotako asko ezerezean amiltzen direla jakitun; norberak bere mundu pertsonalizatuaren kartografia berriak eraiki beharra dauka. Errealitate gertuaraziko duten geografiak diseinatu.

Pablo Bergerrek eta Michel Hazanaviciusek meritua dute, soinuak, hotsak eta keinuak pizgarri nagusi hartu eta atentzioa sortzen duten lanak osatzearekin. Talentu eta jakituria zinematografikoaren isla dira biak. Baina ez dira bakarrak. Bi hauek idatzitako gidoiaz gaindi; guregandik gertu, gutxien uste dugun estalpean asko dira norbanakoak hitz gabeko mundu zuri-beltzean egunero euren gidoia idatzi eta interpretatzen dutenak. Ez dute Oscar saririk sekula jasoko, nekez ikusiko ditugu alfonbra gorrian flash hotsak lagun baina erabat erakuslehoi batean bizi eta beti irripar ttiki batekin erantzuten duenak, horiek ere merezi dute euren saria.

Prensatik bildua



«Lagunekin elkartzen naiz Mendaurrera joateko abenduaren 31n, baina ez naiz mendira joateko arras zalea, oroitzapen txarrak ditudalako. Ttikitan bi aldiz joan nintzen osabarekin ibiltzera eta bi elurte handik harrapatu gintuzten, hotz handia egiten zuten eta arras gaizki pasatu nuen. Errekarerekin Moncayora joan eta berdin. Orain udan bakarrik joaten naiz».

Ibai MEOKI

Doneztebeko jokalaria
D.NOTICIAS 2013.02.11

11 galdera labur

Patata porru edo porru patata?

Patata porru, patata porru, patata patata patata porru... horrelaxe hasi nintzen panderoa ikasten bai! eta Porrupata... Gozategiren kantu famatua ere nire gustokoenetarikoa bat da, ez dakit nola asmatu duzuen!

Noiztik ari zara panderoa asintzen?

6 urtekin hasi nintzen herrian bertan Nagorerekin ikasten eta orduan hainbertze gustatu eta gaur arte! Oraindik behintzat, uzteko asmorik ez dut!

Bikotea ahizpa. Ensaiaizean gurasoak jartzen dituzue dantzaz?

Atta dantzari eta juerga zalea da gure gisa! Ama berriz, ez dut oraindik dantzan ikusi! Gurasoak hainbertze urteren ondotik, igual gure entsaioekin "nazkatu xamar ta guzi" izanen dire! Ez, nabaritzen da berarek ere mundu hau gustatzen zaiela, bertzela ez ligukete hainbertze lagunduko.

Txapela gehiago gordetzeko lekua baduzue etxean?

Bai bai... horrelako sariak hagituz gustora hartzen dire eta

gustoko gauzari beti errax egiten zaie tokia!

Hara eta hona ibiltzen zarete. Udako emanaldiak edo negukoak, zein dituzu nahiago?

Udan gehienbat Dantzadi taldearekin ibiltzen gara. Neguan gehiago sagardotegietan, bazkariak alaitzen...bertze modu bateko erromeriak dira. Eztaikit gai izango nitzakeen bitako bat aukeratzeko, biak era hagitz gustokoak ditut!

Bestarako piezarik gustokoenak?

Bakarra aukeratzea zaila..Trikitixa eta panderoa duen edozein.

Eta bestondorako?

Trikitixa eta panderorik ez! Hoberena, lo egitea, paseoren bat...

Zer behar du plaza batek gustora aritzeko?

Zuk jotako musikarekin jendeak dantza egiten duela ikustea bezalakorik ez dago.

Nori joko zenioke gustora panderoa?

Bueno, hori bertze baterako utziiko dugu...Nik ere eztaikit eta!

Panderotik haratago zer?

Euskal filologia ikasten ari naiz eta karrera akautzea espero dut. Hortik aparte, ahizpari perkusio klaseak ematen lagundu, organoa jo elizan, Etxalarko kronika idatzi, ahal dudanean mendi ibilaldiak egitea eta asteburuan, jotzera ezpada, erromeriak ikusi eta dantza egitera joatea.

Amets bat?

Panderoa ikasten hasi nintzeanean ez nuen inoiz pentsatuko talde bat sortu edo Euskal Herriko txapelketara aurkeztuko ginenik. Eta guttiago txapelketa irabazi eta Euskal te-

lebistako programa batzuetan agertuko ginenik. Iada nahiko amets badiut beteta.

Hurrengo CD bat? Ikusiko da! Hemendik aitzinera, orain arte bezala segitu eta heldu dena ahalik eta hobekien probexu.



Iruñe ELIZAGOIEN → Etxalarko panderojole eta berriemailea

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

F. LANCHAS
Akupuladorea eta berrizatzaila
Parket eta parket flotatzaila
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

LABEZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

zalain
IATETxea, RESTAURANTE
Zalain auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.com

udana
salazones
UNE-EN-ISO 9001
IAC
SISTEMA DE CALIDAD DE CALIDAD CERTIFICADA
SCC-02-0199
Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gaztua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest
Alkaiaga ind. - Baraña, 8 - 23 publiko - LESAKA - Tfnoa: 948 631 536 - Faxa: 948 631 550

Javier Manterola
Tebako instalatzailea
Iturgintza • gasa
kalifikazioa
Tfnoa: 629449602 • BERA

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!
Berrira erosi taldea

Irakurleak mintzo

Noizko euskara ikastea doan?

Patri ARBURUA (Igantzi)

Igantzin helduek gaztelania ikasteko eskolak antolatu dira. Doan dira, parte hartzaileek ez dute deus ordaindu beharrik. Horrelako ikastaroak aspaldi eskaintzen dira (Beran, Lesakan...), baina oraingoan nire herrian bertan eskaintzen direla jakin nuenan zimiko bat sentitu nuen barrenean: doako gaztelania eskolak non eta Igantzin, UEMAN

sartzea erabaki berri duen herri batean, euskarentzat arnagune izan nahi duen herri euskaldun batean... Baina ez da hori idatzi honen gai nagusia.

Parte hartzen ari direnak berriki kanpotik etorritako batzuk dira, eta nekez moldatzen dira gaztelaniaz. Gurera ailegatu eta ikasi behar duen lehen hizkuntza gaztelania izan behar ote den eztabaida luzea litzateke, baina ez da hori ere idatzi honen gai nagusia.

Gizarte eragileok eta herritarrok kanpotik etorritakoei nolako harrera

egiten diegun eta horiek gure hizkuntzara eta kulturara hurbiltzeko egiten ari garen ahalegin eska ere eztabaidatzeko ak dira; bada, hori ere ez da idatzi honen gai nagusia.

Teklatua dantzan jartzera eraman nauena doan izatearen kontua izan da. Erran bezala, gaztelania ikasten ari diren ikasle hauek ez dute matrikularik ordaindu behar izan. Baina Igantzin, gaztelania eskolak ematen dituzten gela berean, lau herritar euskara ikasten ari dira, eta horretarako gutxienez 300 euroko matrikula ordaindu be-

har dute urtero. Badakit gaztelania eskolak antolatzen eta ematen bolidresak dabiltzala, eta horri esker dela posible ikasleek sosik ere ez ordaindu beharizatea; txalotzekoa da haien lana. Badakit, bertalalde, euskara eskolen gibeletik euskalduntze-alfabetatze erakunde bat dagoela, bere soldatapeko irakasleekin, bere metodologiarekin eta urtetako esperientziarekin, eta horrek koste batzuk dituela.

Euskararen behar sozial eskasa, prestigiorik eza, euskararen aldeko hizkuntza politika ahu-

lak... Gaztelania nahitaez eta legez ikasi beharra, hizkuntza hegemonikoa izatea, gaztelaniaren aldeko mendetako hizkuntza politika zapaltzailea... Elementu horiek eta gehiago dira gaztelania doan/euskara ordainduta ondorioaren kausa.

Baina ikasleen eta herritarren ikuspegitik begiratuta errealitatea bat eta bakarra da: gure herrietan gaztelania debalde ikasten ahal da, eta euskara ikasteko ordaindu egin behar da. Ez da justua, eta uste dut gaiari buelta batzuk eman beharko genizkiokeela.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta: Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA

Tel.: 948 63 54 58

Faxa: 948 63 54 57



BERA

OTSAILAK 28
19:30 • Beralandetan
Hitzaldia:
"Exhumando fosas, recuperando dignidades" (gaztelaniaz)
Jimi Jimenez (Aranzadi)

MARTXOAK 2
19:30 • Kultur Etxean
Dokumentala:
"Los caminos de la memoria" (gaztelaniaz)
Jose Luis Peñafuerteren filma

MARTXOAK 3
Omenaldia
11:00 Kanposantuan
Lore eskaintza eta hilarria agerian paratzea
12:00 Herriko Etxeko plazan
(euria eginez gero Kultur Etxean)
Kantariak | Musikariak | Bertsolariak
Dantzariak | Hizlariak
14:00 Zalain Jatetxean
Bazkaria | Prezioa: 18€
Erreserbak: 948 631 106

GIZARTEA

GIZARTEA → OTSAILAREN 18AN

Giro ederrean ospatu dute Boluntarioen Eguna Berako San Jose Zahar Etxean

TTIPI-TTAPA

Musutruk, laguntzeko helburu bakarrarekin, egiten duten lana eskertzeko Boluntarioen Eguna ospatu zuten otsailaren 18an Beran. Egun osoa batera igaro zuten Elkarrizan boluntario elkarteek eta San Jose zahar etxeko adinekoek.

Boluntarioen eguna mahaiaren bueltan hasi zuten, guztiak elkar-tu zirenerako luntx ederra baitzuten zain. Tripa

bete ondotik, besarkadak oparitu zituzten, urte osoan boluntarioek egiten duten lana eskertzeko asmoz. Arratsaldean 16:30ak aldera bertze luntx bat dasatu zuten, Errenteriko Roberto Alvarez eta Jose Ignacio Murua musikariek giroa alaitzen zuten bitartean. Batzuk eserita musikaz gozatzten, besteak gelditu gabe dantzan, ederki pasazuten elkarrekin. Besta egiteaz gain, zahar



UTZITAKO ARGAZKIA

Giro ederrean dantzan ibili ziren Berako Zahar Etxeko Boluntarioaren Egunean.

etxeko eguneroko jarduerak ezagutu eta haietan parte hartzeko aukera izan zuten boluntarioek.

GAZTELERA KLASEAK
IGANTZIN

Bolondres kontuekin segituz, Bortzirietako

Gizarte zerbitzuen Mandu-komunitateak, herritarren eskariei erantzunez gaztelera ikastaroak antolatu ditu Igantzin. As-tean bitan, astearte eta ortzegunetan, 16:30ean elkartuko dira Igantziko eskolan. Ekimena aitzinera daramate Elkarri-

zan taldeareei esker. Maribel Abril Eraso eta Igantziko Udalaren eta eskolaren laguntza ere ezinbertzekoa izan da. Bortzirietan abian jartzen den laugarren alfabetizazio taldea da, Lesakan bat eta Beran bi baitaude dagoeneko.

BERAKO AGENDA

martxoa

Espainiako gerran fusilatutakoak eta desagertutakoak gogoan

28
ortzeguna

OTSALAK

2
larunbata

DOKUMENTALA:
Los caminos de la memoria
Jose Luis Peñafuertes filmak
19:30 - Kultur Etxean - Gaztelera

3
igandea

OMENALDIA
11:00 - Kanposantuan - Lore eskaintza eta hilarria agerian paratzea
12:00 - Herriko etxeko plazan (jeuria eginez gero Kultur Etxean)
Kantariak, musikariak, bertsoariak, dantzariak, hizlariak
14:00 - Zalain jateborean - Bazkaria
Prezioak: 18€ - Erreserbak: 948 631 106

4
astelehena

SOLASALDIA:
"Genero ikuspegia, bidala kazetaritza aberasteko tresna"
Ander Izagirre • 18:00 - Beralandetan

9
larunbata

ESCENA DANTZA JAIALDIA: *"Because we love"* (Fuensalida)
20:00 - Kultur Etxean - Sarrera: 6€
Abonamendua: 10€ (Abonamendua ekitaldi honetarako eta apirilaren 6ko ekitaldirako balo du: "Suite Navarre" (Aldanza))

20
asteazkena

UDABERRIKO KONTZERTUA
17:30 - Kultur Etxean - Antolatzailea: Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskola

21
ortzeguna

SOLASALDIA: *"Bertze eredu energetiko bat"* GOENER Energia bertzeagariaren sortutza eta erosle kooperatiba (Santi Ochoa de Erbe) • 18:00 - Beralandetan

30
larunbata

BERA KANTARI
19:00 - Ilekuetan

15
ortziera

KORRIKA TTIKIA
Berako ikastetxeen eta Uxane zentroaren parte hartzearekin
11:00 - Aitzateko plaza - Legia Korrika (Itzulera)
Korrikaren kantaren koreografia dantzaritza dute

17
igandea

KORRIKA
Berara 05:00ak aldera ailetuko da (Sara eta Bera arteko mugara), gero Mainerriko bidea hartzeko (N-121-A)

10
igandea

ELKARRETARATZEA, EMAKUMEAREN EGUNA
13:00 - Aitzateko plazan

Eztabaiden gainera informazio gehiago 012 telefonoz edo www.berakoudala.net

GIZARTEA → ORTZEGUNEAN SOLASALDIA IZANEN DA

Espainiako Gerran fusilatutakoak eta desagertuak gogoan izanen dira egunotan

Otsailaren 3an lore eskaintza egingen zaie kanposantuan

TTIPI-TTAPA

Espainiako gerran fusilatutakoak eta desagertutakoak gogoan izanen dira egunotan, Udalak antolatutako ekitaldien bidez. Otsailaren 28an, ortzegunean, 19:30ean *Exhumando fosas, recuperando dignidades* solasaldia eskainiko du Aranzadiko Jimi Jimenezek Bera-landetan. Otsailaren 2an, larunbatean, *Los caminos de la memoria*, Jose Luis Peñafu-erteren dokumentala eskainiko da 19:30ean Kultur Etxean. Ekitaldi nagusia, halere, igande-ean egingen da, martxoaren 3an. 11:00etan lore eskaintza egingen da eta hilarria agerian paratuko da. 12:00etan kantariak, musikariak, bertsolariak, dantzariak eta hizlariak ariko dira Herriko Etxeko plazan egingen den ekitaldian. Euria egingen balu, Kultur Etxean egingen litzateke. Akautzeko, bazkaria egingen da Zalain jatetxean.

Emakumearen Astea

Emakumearen Astearen inguruan, Bortzrietako Jendarte Zerbitzuen Mankomunitateak zenbait ekitaldi antolatu ditu. Martxoaren 4an, astelehenarekin, *Genero ikuspegia, bigaia kazetaritza aberas-teko tresna* solasaldia eskainiko du Ander Izagirrek 18:00etan Bera-landetan. Martxoaren 10ean, igandearekin, Emakumearen Egune-ko elkarretaratzea egingen da 13:00etan Al-tzateko Plazan. Egun horretan, Bortzrietako IV. Emakumeen Mendi Itzulia ere egingen da Etxalarren.

Escena dantza jaialdia

Martxoaren 9an izanen da Escena dantza jaialdiko lehenbiziko saioa. Fuedadeleje taldeak *Because we love* emanaldia eskainiko du Kultur Etxean, 20:00etik aitzinera. Sarrera 6 euro gostako da, baina 10 euroko abonamenduarekin, apirilaren 6an Aldanza taldeak eskainiko duen *Suite Navarra* emanaldira sartzeko aukera ere izanen da.



UTZITAKO ARGAZKIA

40 bikote aritu ziren Gure Txokoako 7. mus txapelketan

Bortzrietako 40 bikotek jokatu zuten otsailaren 9an, Gure Txokoa elkartearen zazpigarren mus txapelketa azkarra. Asier Saragueta eta Fede Fernandezek lortu zuten garaipena. 400 euro eta txapelak eskuratu zituzten. Teresa Igoa eta Jokin Rico izan ziren txapeldunordeak eta Zalain jatetxean otorduak irabazi zituzten. Hirugarren postuan, Fernando Irazoki eta Iñigo Alzugarai "Pierola" geratu ziren eta hauek Zubiondon otorduak lortu zituzten. Laugarrenak Mikel Arburua eta Martin izan ziren eta hauek, Martikoko loteak etxeratu zituzten.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Iñude eta Artzaien 40 bikotek girotu zuten inauteri igandea

Iñude eta Artzaiek bere lana bete zuten inauterietako igandean. Azken asteetako eguraldi euritsuak igande goizean eman zuten atsedendia aprobetxatuz, 40 bat bikote osatu ziren eta giro onean egin zuten ibilbidea, Eztegarra frontoitik abiatuta. Lagun eginez, beti bezala, musika banda eta Momo Erregea eta bere pajeak zeuden, Hegoa Telletxea, Xamal Vazquez eta Luka Remiro aurten. Momo Erregeak, iñuderen bati maindirea itsatsi zitzaiola ikusirik, goitza egin zuen bikoterik gabe gelditutako artzaien batekin. Astelehenean, goizeko Zingar Arraultz eskearen ondotik karrozen desfilea egin zen karriketan.



LESAKA

ELKARTEAK → MENDI BIZIKLETA ITZULIAREKIN BATERA

Euskadiko BTT txapelketa herrian jokatu da irailaren 22an

Pintura lehiaketa azkarra ere lehen aldiz antolatuko du Beti Gaztek

Aitor AROTZENA

Beti Gazte elkarteak urteko batzar orokorra egin zuen otsailaren 16an eta aurtengo ekitaldiak gauzatzeko 94.000 euro inguruko aurrekontua izanen du. Mila bazkide baino gehiago izan arren, hogei eskas bildu ziren egoitzan.

Joan den urtean Jose Luis Sunsundegik hartu zuen presidente lana, 16 urte karguan eman zuen Salvador Yanciren lekua hartuz eta aurten ez da aldaketa handirik izanen zuzendaritza batzordean.

Ekitaldiei dagokienez ere ez da berrikuntza handirik. Denboraldi honetan, inoiz baino neska-mutil gehiago ari dira futboleko Beti Gazteren izenean, benjamin mailako futbol-8ko neska-mutikoetatik hasi eta Gipuzkoako Ohorezko Mailako talde nagusira bitarte, 190 jokalaririk in-

guru. Beharbada aipagarriena, lehen aldiz ekainean antolatuko den pintura azkarreko lehiaketa da. Ekaina hasieran ere Beti Gazte Elkartearen Eguna egingen da. Bertze gainerakotan, Santiago Bideko hirugarren denboraldia egingen du mendi taldeak aurten Logroño eta Burgos arteko zatia lauzpabortz etapatan gauzatzuz.

Irailaren 22an egingen den Mendi Bizikleta Itzulia aurten berrikuntza handia izanen du. Izan ere, ibilbide luzean Euskadiko BTT Maratoi txapelketa jokatu da lehen aldiz. Txapelketan parte hartu gabe ere, ibilbide luzea, ertaina eta laburra aukeran izanen dute beti bezala txirindulazaleek.

Aita eta Aitatxien Eguneko bazkaria

San Fermin elkarteak Aita eta Aitatxien Eguneko bazkaria antolatu du martxoaren 19an egoitzan. Txartelak elkartearen ostaturan eskura daitezke martxoaren 12a bitarte, 20 euroren truke. Guttienez 10 lagun beharko dira bazkaria egiteko.



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA ETA UTZITAKOIA

Euriari aurre egin eta giro ederrean joan dira inauteriak

Zakozarrek (tartean Oier Sanjurjo Osasunako futbolaria zela) beraien harat-honata egin zituzten igande arratsean eta asteleheneko karroza ugarien artean, Erretiradi peñakoen Gran Premio Lesaka moto lasterketa eta Amaia Eneterreaga eta Martxel Rodriguez ezkontide zituen ijitoen ezkontza handia saritu zituen Zerbitzuen Elkarteak. Baina zer ikusi aunitzez gehiago izan zen inauteetan.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Toti Martinez de Lezea idazle ezaguna Irain eskola publikoan

Otsailaren 19an literatur solasaldia antolatu zuen Irain eskolak Toti Martinez de Lezea idazlearekin. Lehenik, Teleskola proiekturako elkarriketa grabatu eta ikasleekin *Nur eta dortoken uhartea* lanaz hitz egin zuen eta gero, *Hautsi da katea* liburutik abiatuta bere ibilbide literario osoari errepasoa eman zion.

XATURETXEA
JATETXEA
T. 948 637 260 - LESAKA

IRU BIDE
Energia - Auzola
Baserriak, 37 Lesaka
Tel. 948 637 127

kulki
umeentzako kultur kirolak
Tel. 948 552 171
www.kulki.org

SOBEKO
MIXERANZAGARREN
Frans Auzoa - LESAKA
Tlxoa: 948 637 826

Lehenik
Bemuntzak
Martxoaren
Jentzi egunak
Purpur Maak
kaltzagoria
Behoko plaza 10 30770 Lesaka
T. 948 627 514

HITZORDUA → GIDARI BATEK LAGUNDUTA

Kontrabandoko bide eta istorio zaharrak gogoratu eta ikasteko aukera eskainiko da

Martxoaren 23an hiru orduko ibilbidea egingen da gauzez

Irune eta Itsaso

Garai batean kontrabandistek egiten zuten bide bera egiteko aukera izanen du edozeinek, gidari batek lagunduta eta lehen kontrabandistek izaten zituzten arriskurik gabe. Martxoaren 23an izanen da, ilunabarreko 20:00etan frontoian bildu eta 20:30etan abiatuko dira 3 orduko mendi buelta egitera. Izena emateko bertiz@consorciobertiz.org –en edo 948450014 telefonoan egin behar da.

Euskarazko komunikabideen aldeko mus txapelketa

Ttipi-ttapa, Xorroxin eta Xaloaren aldeko mus txapelketa jokatu zen

otsailaren 16an Elutsa ostatuan eta 6 bikotek parte hartu zuten. Manuel Telletxea eta Angel Mari Iribarren izan ziren garaileak eta Mattin Zelaieta eta Venancio Elizagoien bigarren. Txa-peldunek Elutsan afarria eta apirilaren 6an Sunbillan jokatu den finalerako txartela izan zuten saria eta bigarrenek Erreala-Levante partida ikusteko bi sarrera.

Giro ederrean joan dira inauteriak

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, hori ez zen arazoa izan herritarrentzat inauteriak ospatzeko. Ortzegun Gizenarekin hasi ziren. Landagain eskolako ikasleek eurria hasi arte herriko xokoetan antzerkiak egin zituzten. Eurria hasi zuenean 5. eta 6. mailako ikasleek plazan antzeztu behar izan zuten; baita Antsolokueta auzoan egin beharreko dantzak ere. Guztira 71 ikasle eta 13 irakasle hartu zuten par-



ARGAZKIAK: MATTIN ZELAIETA, JAVIER IRIARTE, ONINTZE ZINKUNEGI ETA REBECA ARANZADI

Argazki hauek inauterietan giro ederra izan zenaren erakusgarri.

te eta giro politean pasatu zuten arratsaldea.

Otsailaren 10a, Zaldun inaute eguna, kinto bazkariak izan ziren.

Otsailaren 11a, Astelehen inaute egunean, goizeko 8etarako bildu ziren 45 bat gazte La Basque ostatuan gosaltzeko eta ondotik bi taldetan banatuta, batzuk goiko

auzoan eta bertzeak behekoan, eskean ibili ziren egun guziaz trikitilarien laguntzarekin. Ilunabarrean berriz denak elkartu eta egunari akabera emateko pintxoekin afaldu zuten Elutsa ostatuan.

Astearte inaute egunarekin akautu ziren inauteriak. Eguerdian mozorro eta karrozekin

herriari itzulia eman zitzaion. Arratsaldean berriz, Beñat akordeoilariak alaituta, Altxataren eskutik, taloak salgai izan ziren frontoian bigarren urtez segidan. Ilunabarrean, astelehenean baserrietan banatutako zenbakien zozketa egin zen eta saskia Iturraldeko bordara joan zen.

XAGU LIBURUDENDA

Tel. / Fax BERRIA: 948 638 232

Konkaintako bidea, 7
31770 LESAKA

zatoz derudi horu ezagutzera!

- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

USOA
Nekazari kooperatiba

- Bertan egindako pentsuak, bertze markak eta ekologikoak
- Ongariak - Burdin tresnak
- Insektizidak - Edarriak - Haziak
- Botikak (errezetarekin)

Etkez etxeko banaketa egiten da Kalefakzioa eta ibilgailuendako gasolioa

Tel. eta Faxa: 948 63 52 14 • ETXALAR

J. RAMOS
zolak akutzilatuta eta barnizatzen ditut

Sakeleko: 637 836 023 • LESAKA

ERROTAR

harategia

Bertako produktuak

Etegara, 3 - BERA
Tel/Faxa: 948 630 088

ARANTZA

ELKARTEAK → LANAK

Eguneroko bazkaria etxera eramateko zerbitzua eskaintzen du Zahar Txokok

Otsailaren 3an, jubilatuen elkarteko batzar nagusia izan zen

Nerea ALTZURI

Zahar Txoko Jubilatuen elkarteak urtean zehar elkartze datak izaten ditu eta era berean, elkartetik, zenbait ekimen aintzineraren eraman dira. Ez da oraingoa eguneroko bazkaria etxeetara eramateko zerbitzu hori. Ezintasunen bat duen jubilatuen bat lagun jubilatuen horrek, dagentzarik ez duenak... honako zerbitzu hau eska dezake.

Zuk erabaki, zuk aukeratu aurtengo kanpainaren bitartez, zerbitzu horren zati bat ordaintzeko modua izanen da eta hori dela eta, elkartetik eskertu nahi izan dituzte proiektu honen alde beraien sinadura eskaini duten guztiak.

Bertetik, Zahar Txoko jubilatuen elkarteak otsailaren 3an bilera merendua egin zuen. Hogeita hamar bazkide bildu ziren eta iazko diru kontuak eta bertze gainerako aferen inguruko informazioa eman zen batzarrean. Ondoren,

iaz, uztailean Amaiurren egin zen *Haien ametsa gurea da* bideoa ikusi zuten. Arratsaldeari bukaera ona emateko, merendu afaria egin zuten. Aski gustokoak ditugun arto opilak, txistorra, xingarra, gazta eta esnearekin jan zituzten. Egoitza barenean, goxo goxoan eta kanpoko hotzari aurre egiteko moduan, arratsalde pasatu ederra egin zuten.

Kruzeroa ekainan

Datorren ekainean izanen den kruzeroan parte hartu behar duten ia gehienak bildu ziren otsailaren 17an. Guzira, 63 lagun joan dira oporraldira eta tartean herritarrak ere izanen dira. Bidaia, ekainaren 24an abiatuko dute eta aste batez, Mediterraneo aldeko urak eta ertzeetako lurrak zantpatuko dituzte. Bidaia-ri buruzko zenbait punturi buruz solastu ziren bertan. Aitzinetik, bideo



ARGAZKIAK: XABI ZUGARRAMURDI

Arkupeak elkarteko bazkaria eta mus txapelketa

Otsailaren 10ean, Arkupeak elkarteko herriko besta izan zen. 33 bazkide bildu ziren Aterpen bazkaltzen eta ondoren mus txapelketa egin zuten. Beheko argazkian, domina eta guzi Manolo Iturria, Tomas Goia, Eusebio Gonzalez eta Sekundina Bergara ikusten ditugu mahai inguruan. Maria Dolores Iturria, herriko delegatua ere ageri da. Herrian, guzira, 80tik gora bazkide ditu Arkupeak jubilatuen elkarteak.

bat ikusi zuten. Orain bi urte Normandiara eta iaz Alemaniara egin dituzten bidaietan aintzintatu zitzaizkien azkeneko gerra mun-

dialaz, Faxismoaz eta abar; eta Nüremberg hiriburuan bertako epaiketa famatuak burutu zituzten epai-jauregia bisitatu zuten. Hori de-

la eta, *Vencedores o vencidos* filma ederra ikusi zuten afal aintzinetik. Opiljatearekin ilunabarri bukaera ezin hobea eman zieten.

BERA Zere lagurra klase guzietako inaktuz (xomorro, zinoarra, armiarna, kukuxu...) eta orrotai xagotuz garbitu nahi baduzu, daite! Termite eta Pipien tratamenduak

GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 625 697 • Zelaia, 42 A • BERA

LARRALDEA eta **LINDURRENBORDA**

Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea Txotx denboraldia irekia Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa - LEXARROZ | 948 452121 - 626 494317
LINDURRENBORDA | Nabaz auzoa - LESAKA | 948 637212

ANTZUZELAI ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK

Tel: 948 631 317 • Fax: 948 631 587
Inongo errep. BERA
www.antzuzelai.com
info@antzuzelai.com

Aintzinaldeak, angeluzak, oma antzinakoak, leihoak, ateak, arkuak, pilareak, tximiniak, etxizak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marmazkiak

GIZARTEA → APIRILAREN 27TIK MAIATZAREN 1ERA

Udaberriko bestak antolatzen hasia da Euskara Batzordea

Igantzin kantari eguna eginen da maiatzaren 1ean

Joxean ORTEGA

Udaberriko Bestak antolatzen hasi da Euskara Batzordea. Aurten apirilaren 27 eta 28an, eta maiatzaren 1ean izanen dira. Horren harira, apirilaren 28an merkaturatu eginen da etxeko produktuekin (kontserbak, loreak, baratzeko puskak, postreak...) eta bigarren eskuko puskekin (jostailuak, liburuak, boltsoak, bitxiak...). Aurten, biltzen den diruarekin, herriko telefono gida berria eginen da, eta etxeen errotulazioa ere egin nahi da. Oraindik bi hilabete falta dira azokarako, baina herritarrei dei egin nahi zaie etxeko puskak merkaturako altxa ditzaten.

Maiatzaren 1ean Igantzi Kantari eguna

eginen da, herriko karraketan. Horretarako, aitzinetik hainbat euskal kanta ikasteko aukera izanen da, martxoaren 1ean hasi eta ondoko ortziraletan. Entsaioak 22:00etan izanen dira, Erretorbaitan. Kantatzeko afizio pixko bat duen edozein herritarrek parte hartzen ahal du, eta ez da beharrezkoa musika jakitea.

Meza Juan Bautista Irazokiren alde

Juan Bautista Irazoki zenaren aldeko meza eginen da martxoaren 10ean. Juan Bautista Igantzin izan zen hainbat urtetan apaiz, 1989an Leitzara joan zen arte. Igantzin egon zen urteetan lan handia egin zuen herrian hainbat gaitan. Errate baterako, ikastolaren sorreran, edo Biltoki elkartearen sorreran, abesbatzarekin, eta zer erranik ez kultur arloan.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Arkupeak elkarteko bazkaria La Villa jatetxean

Otsailaren 15ean, Arkupeak elkarteko Igantziko 17 bazkidek ospatu zuten bere besta. La Villa jatetxean ederki bazkaldu ondotik, Julian Telletxea eta Gerardo Seinek irabazi zuten mus txapelketa eta Ramon Retegi eta Severino Retegi izan ziren bigarrenak. Gainerako herrietako txapelkun eta txapelkun ordeen batera, final nagusirako txartela lortu dute. Finala martxoaren 21ean izanen da Hondarribiako Ardora jatetxean. Martxo erdialdetik aitzinera, txapelketako argazkiak eskura izanen dituzte bazkideek elkartearen web orrialdean.

Baratzeko ekologikoa

Otsaileko bi larunbaretan 10 lagunek Baratzeko Ekologikoa buzurko ikastaroan parte hartu dute. Maiatzean Hondarribiko baserri ekologiko bat ikustera ere joanen dira. Ikastaroa Udaleko Kultura Batzordeak antolatu du eta eskolan burutu da.

Zinea euskaraz

Martxoan ere, zinea izanen dugu: *Nömadak* tx pelikula Oreka TX taldeak munduan zehar

eginiko girari buruzkoa da. Lekua eskola izanen da, eguna: martxoaren 3an eta ordua arratsaldeko 7:30ean.

Elkartek elkarrekin 'Zuk aukeratu, zuk erabaki' egitasmoan

Caixak antolatzen duen "Zuk aukeratu: zuk erabaki 2013" egitasmoan, Igantziko elkarte batzuk bat eginik parte hartuko dute: Udala,

Biltoki, Guraso Elkarte eta Abesbatza. Denen artean proiektu bat aterako dute, eta beraien asmoa igantziar gehienek bertan sinatzea denez, etxeetara eskutitza igorriko digute behar diren adierazpen guztiekin. Ea beren asmoak gauzatzen laguntzen diegun!!!

Aurrematrikulazioa

Betzaldetik, heldu den ikasturterako eskolan 3 ikasle berri aurrematrikulatu dira.



ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontrabuztutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Eibarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LEZAKA: Bittiria, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

GAZTE OIHUA

GIZARTEA → GAZTE MUGIMENDUA

Martxoaren 2ko kongresuak bukatutzat emanen du Zukgua prozesua

Gazte antolakunde berriaren izena eta logoa aurkeztuko dituzte Lizarran

GAZTE OIHUA

Martxoaren 2an Zukgua prozesuari akabera emanen dion gazte kongresua ospatuko da Lizarran. Bertan prozesu eratzailari bukaera eman eta gazte antola-

kunde berriaren izena zein logoa aurkeztuko dira. Egun hortatik aitzinera hasiko dira gazteak antolakundearen bidez herriz herri lanean, independentzia, sozialismoa eta feminismoaren bidean. Eskualdeko gazteek kongresura joateko deia zabaldu dute.

Hendaiako Gazte Eguna

Hendaiako gazte eguna martxoaren 9an ospatuko da, *Bada ga-*

raia, esna hadi gazte! goiburupean. 10:30ean Iparraldeko gazte mugimenduaren inguruko hitzaldia izanen da merkatu zaharrean. 12:00etan presoan aldeko txistulari diana izanen da. 14:00etan bazkaria izanen dute gazteek Merkatu zaharrean eta ondotik Jonny Platz komikoaren monologoa. 18:00etan triki-bertso-poteoa izanen dute eta 20:00etan kontzertuak Imuntzo eta Beloki, Urmurao eta Bad Sound System talde-



UTZITAKO ARGAZKIA

Martxoaren 2ko kongresua aurkezteko egindako prentsaurrekoa.

kin. Bazkaria 10 euro gostako da, kontzertuak 5 euro eta bazkaria eta kontzertuetarako

sarrerak 13 euro. Erre- serbatzeko telefonoak: 0659091885 edo 655995236.

GAZTE DANBADA URDUÑAN

Martxoaren 29tik apirilaren 1era egingen den jaialdirako txartelak Lesakan eskura daitezke

GAZTE OIHUA

Gazte Danbadako bonoak Lesakako Arranon salgai. Martxoaren 29,30,31 eta apirilak 1 Gazte Danbada izeneko jaialdia ospatuko da Urduñan: gazte antolakunde berriaren erditze jaialdia izanen da. Bertan hitzaldi, tailer, kale animazio, kontzertu (tartean The Toy Dolls, Obrint Pass, Afu, Bad Sound System...) eta berze hainbat ekimen izanen dira. Martxoaren 4ra arte bonoak hamarnaka erosi

daitezke 40 euroren truke. Hortik aintzina, 45 euro balioko du bono bakoitzak eta banaka erosi beharko dira. Eskualdetik, hamarnakako taldeak egi- tea errazteko zerrenda bat egi- na dago Arranon, baita au- tobuseko zerrenda ere. Gazte Danbadari buruzko informazio gehiago www.gaztedanbada.net webgunean.



elika
Dietetika = elikadura
ttipi txartela
%5eko
DESKONTUA
kontsultan

ZUBIONDO
Jatetxea
agardotegia jatetxea
Alasta karrika
HERA NAFARROA

ERREKALDE
PATEK KONTZERTUAK
PATEK
KONTZERTUAK
TFONA: 948 630 259 6224

Egin zaituz
ttipi-ttaparen
harpidedun
ttipi-ttapa
(0034) 948 63 54 58

OSPAKIZUNAK → BIGARREN URTEZ

Kantu Zaharren Eguna antolatu dute Ariztigain kanpinean

Martxoaren 9an egun osoko besta izanen da

Maider PETRIRENA

Ariztigain kanpinean II. Kantu Zaharren Eguna antolatu dute martxoaren 9rako. Egun osoko egitarau zabalarekin eta koparekin ongi bustia. Bazkaldu bitartean kantuan ariko dira eta bazkal ondoren eta arratsalde guztian ere berdintsu. Francisco akordeolariaren laguntzarekin kantu zaharrak abesteko aukera izanen dute, Angel

Mariezkurrena eta Aitor Ibarra "Jalisko" kantuen gidari dituztela. 20:30ean pintxoak, edariak eta kafea izanen dira, indarberritu eta kantuan segitzeko.

Bazkaria, pintxoak eta egunean banatuko den liburuaren truke 43 euro ordaindu beharko da. Izena eman nahi duenak Ariztigainera deitu beharko du (948 450540) eta martxoaren 6a izanen da hondar eguna.

Mus txapelketa komunikabideen alde

Otsailaren 16an Ttipi-ttapa, Xaloea eta Xorroxinen aldeko mus txapelketaren kanporaketa izan zen Ulibeltzak elkartearen. Erran beharra da pena haundia baina bakarria 7 bikotek parte hartu zutela eta ondorengo izan zen sailkapena:



ARGAZKIA: JOSUNE AGIRRE

Mus txapelketako txapeldunak eta txapeldun ordeak sariekin.

1. Jose Luis Aguirre-Jose Miguel Galain.
2. Julen Ibarra-Jon Juankorena.
3. Jose Martin Agirre-Jon Apezetxea.

Guraso Elkartearen bilera

Otsailaren 18an Guraso elkartearen bilera izan zen eta bertan solastu ziren gaiak 2012ko konputuak eta juntako 2 kideen aldaketa izan ziren. Erran beharra da junta utzi dutenak, 2 urte pasatu ondoren, Pilar Korta eta Iciar Mikelperizena izan direla. Hoiengoa lekuak betetz, bolondres, Lourdes Indakoetxea

eta Maidar Petrarena izan dira, hauek ere 2 urte bete beharko dituzte. Beraz orain guraso elkartearen junta osatzen dutenak ondorengoak dira: Maidar Petrarena (Lehendakaria), Maite Jorajuria (lehendakari orde), Ines Elizondo (Idazkaria) eta bokalak (Itziar Alzuri eta Lourdes Indakoetxea). Eskola kontseiluan berri, gurasoen ordezkariak hauek dira: Mi-

kel Etxalar, Ines Obregon eta Maite Aizkorbe.

Aurrematrikulazioa

Otsailaren 1etik 8ra bitarte 2013-2014 ikasturterako aurrematrikulazioa egiteko aukera zuten Haur eta Lehen Hezkuntzan matrikulatu nahi duten ikasleek. Ikasturte horretan 11 ikasle berri eman du izena.



Ba al zenekien...

Navarra TV-eko otsailaren 7ko Ttanttaka programan Sunbilla atera zela, eta bertan Pako Errandonea eta Jaione Otxandorena izan zirela hizlariak.

ZUEN HERRIKO BESTAK ETA EKITALDI DESBERDINAK ANIMATZEKO TALDEA

AGRITOS BAND

- 2011n onarutako TXARRANGA
- 30 lagunek osatuta
- Esperientziarekin: Dantzaritza, instrumentuak, Aste Nagusia...
- Entseu desberdinetako kantak jurtzen dituzte

DAUKAZUEN AURREKONTURA MOLDATZEN GARA

T. 616 865 751 | agritosband@gmail.com | www.agritosband.com

APARAN, S.A.

BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarniak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

DONEZTEBE

KOMERTZIOAK → DONEZTEBARRAK ELKARTEA

San Valentín Eguna aitzaki, erakusleiho bereziak prestatu dituzte merkatariek

Arrakasta ikusita, bi astez ikusgai izan dituzte

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 14an ospatu zen San Valentín, maiteminduen eguna. Horren arira, ekimen berezia jarri zuten abian Doneztebarrak merkatariek elkarteko kideek, erakusleihoak apaindu baitzituzten mezu deigarri eta baikorrek. Merkatariek bakoitzak eskaintzen duen zerbitzu edo produktuarekin lotutako esaldiak jarri zituen. *Muxuka ezazu zure Osasuna, Irribarrea nirea da, baina arrazoia zu zara, Goxo batek ez dio inori kalterik egiten...* esaldiak irakurri zitezkeen. Irudimena martxan jarri zuten, hala ere, erakusleho guztietan lelo bera errepikatzen zen, *Doneztebarrak maite zaitu* agertzen baitzen bihotz handi baten in-

guruan. Bezeroei esker ona adierazi eta herritarrei eta kanpokoei Doneztebera etorri eta bertako denda, tailer, ostatu, ileapaindegiak... bisitatzerantz animatu nahi izan dituzte ekimen honen bitartez.

Erreka elkarte Xabieraldira

Urtero bezala Xabieraldian parte hartzeko autobusa antolatu du Erreka Kirol Elkarteak. Martxoaren 16an, larunbata, izanen da irteera. Apuntatzeko Titi Ostatura joan behar da edo 948 450 271 telefonora deitu. Autobusaren prezioa 17 eurokoa izanen da bazkide ez direnentzat eta 14 euro bazkideentzat. Irteera goizeko 5etan izanen da, Iruñean geldituko delarik. Handik Javierrean dauden 42 kilometroak oinez egin beharko dira. Gero autobusak Xabierren hartuko ditu eta Doneztebera itzuliko dira.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Hitzaldi interesgarria Arkupeak elkartearen eskutik

Arkupeak elkarteak ikastaro eta hitzaldiak antolatzen segitzen du. Lehendabizikoa Donezteben izan zen otsailaren 15ean *Zaintzaileak eta erretiratuak* izenburupean. Interesgarria eta hunkigarria izan zen saioa, bertaratu zirenek beraien bizipenak kontatu baitzituzten. Herriko bazkideek, otsailaren 17a aukeratu zuten besta ospatzeko. Donamariako Posadan elkartu ziren. Hamar bikotek hartu zuten parte mus txapelketan. Irabazleak Santos Lizasoain eta Juan Miguel Eloza izan ziren eta bigarrenak Jose Antonio Sarratea eta Isabel Lacar.



UTZITAKO ARGAZKIA

Inauteriko mozerro onenak saritu ditu Doneztebarrak elkarteak

Doneztebarrak elkarteak inauterietako mozerroen artean bi sari banatu ditu. Banakako mozerroren hobereenaren saria, afari bat, Xixo Larrazak eskuratu zuen Adolf Hitlerren mozerroarekin. Inauterietara bertaratu zirenek diotenez, atrezzo ederra eta antzeppen bikainak eskaini zituen. Taldekako mozerro onenaren saria berriz, saski eder bat, Titifue tabernako koadrilak lortu zuen. Kubatar eritimo eta koloreak ekarri zituen haur, gazte eta helduek osatutako taldeak.

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

ASKIN
UDAL HAUR ESKOLA
Doneztebe | 948 451 868
askinhaurreskola@gmail.com

IZENA EMATEKO EPEA:
martxoaren
1etik 22ra

ATE IREKIEKIN JARDUNALDIA:
martxoak 9
11:00-12:30

ola
SAGARDOTEGIA

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa

- 250 lagun eserita
- Klimatizaturia
- Sagardotegiko menua

TXOTX GARALA IREKIA

102 Meaka suzoa - 20304 IRUN - Tfnoa 943 623 130

ORBELA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoa - Mikel
Tel: 948 450 014
BEINTZA-LABARRA
www.beintza-orbela.com

IKASTAROAOK → LEHEN ALDIZ

Afrikar dantzen ikastaroa eskaini zen otsailaren 9an Kultur Etxean

Zuzeneko musika ere izan zuten hamalau ikasleek

Mattin LARRALDE

Afrikar dantzen ikastaroa eskaini zen otsailaren 9an kultur etxeko gela batean. Bertara hamalau lagun hurbildu ziren ikastera. Musika ere zuzeneko zeukaten ikastaro honetan, lau musikari jo eta su aritu baitziren. Jendea oso pozik atera zen mota honetako dantzak ikasteko lehen saio honetatik.

Poliki poliki, herri ezberdinetako kulturak ikasten hasiak gara ari

DATUA

14

IKASLE

aritu ziren Afrikako dantzak ikasten eta pozik atera ziren.

gara eta polita da hori, zorionak ikastaroa egin dutenei!

Euriteen eragina somatu da pistetan

Negua euritsua doa, eta bere eragina gure herrian nabaritzen ari da. Amezтира doan pista bi lekutan moztuta dago, batean lur eror-



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Uraren eragina ederki somatu da Amezтира doan pistan.

tza bat izan delakoz eta goitixeago, zuhaitz batzuk erori direlako pista. Lurra oso hezea dago hainbertze ur pilaketen ondorioz, zoritxarrez horrelako gauzak gertatzen dira. Bada e-

rrana, sua eta ura be-launaren azpitik eta ez da zalantzarik ur askok bere kalteak eragiten dituela. Agian erran behar dugu urak bere bidea hartzen duela, lehenago edo berandu.

BORTZIRIAK

Emakumeen IV. Mendi Itzulia martxoaren 10ean egingen da

TTIPI-TTAPA

Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta antolatu diren ekitaldien artean, Bortzirietako emakumeen 4. mendi itzulia egingen da martxoaren 10ean. Aurten Etxalarko Zentinelara igoko dira eta 09:00etan paratu dute hitzordua herri sarrerako aparkalekuan. Menditik jaitsita elkarretaratzea egingen dute 13:00etan plaza eta gero bazkaria izanen dute Etxalarko Herriko Ostatuan. Bazkarirako apuntatzeko epea martxoaren 3an bukatuko da eta 677 031920ra deitu behar da (Eduerne, 19:00etatik aitzinera). 18:00etan, Mentxu Peña Lizarazuren *Emakumea mendian ere bai* proiektioa eskainiko da Kultur Etxean.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea
Tafalla, 15 • IRUÑEA • 948 230 634

Hilabete txuria
merkealdia

edredoi fundak • albornoak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak

BERTIZARANA

OSPAKIZUNAK → 30 LAGUN IBILI DIRA

Narbarteko inauteriak giro ederrean

Euripean egin behar izan zuten herriko buelta

Martin BERTIZ

Aurpegi ona eguraldi txarrari, hori izan da inauterietako laburpena. Aspaldi gogoratzen diren euritsuenak izan ditugu, baina eguraldia ez da eragozpena izan besta egiteko. Ortzeguneko gaztetxoek egunarekin hasi ziren eta koadrila polita osatu zuten, bai gaztetxoek baita gurasoek ere. Ortziralean 45 bat lagun bildu ziren ostatuan afaltzera eta giro paregabea izan zen gauean. Larunbat goizean gosaldu ondotik 30 bat lagunek herriari buelta eman zioten, meritu ederrarekin eurite ederra botatzuen eta. Gauean ostatuan afari ederra izan zuten eta inau-

teak akitzeko, igandean mus eta partxis txapelketak antolatu ziren.

Zurrutzako erreka

Adituen erranei kasu eginda, hauek erraten dute lurak ezin duenean ur gehiago irentsi Zurrutzako erreka agertzen dela. Bada, negu honetan jada hiru aldiz agertu zaigu argazkian ikus daiteken bezala.


Arkupeak

Otsailaren 2an ospatu zuten Arkupeak elkarteko herriko bazkideek bere eguna. 95 lagun elkartu ziren bazkarian. Mustxapelketa Jose Luis Oscoz eta Patxi Iruruetak irabazi zuten, Jose Orbegozo eta Angel Etxenikeren aurkako finaleko partida irabazita. Musean aritu ez zirenek Jose Angel musikariak jotako abestiaren eritmoan mugitu zuten gorputza.



ARGAZKIA: MARTIN BERTIZ

Gazteak giro ederrean ibili zirela, ez da dudarik.



ARGAZKIA: MARTIN BERTIZ

Zurrutzako erreka, lurak ur gehiago xurgatu ezin duenaren seinale.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Arkupeak elkarteko Legasako bazkideek bere urteko otordua egin zuten.



ARGAZKIA: MARTIN BERTIZ ETA UTZITAKOA

Narbate eta Legasako inauterietan ere, eskolak murrizketen kontra

Narbarteko eskola murrizketen aurka dagoela isladatzeko, mozorroak soinean zituztela, argazki ederra atera zuten inauteri egunetan. Bertze horrenbertze egin zuten Legasako ikasle, irakasle eta gurasoek ere.



TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK

ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

AUKERATU
GURE PROIEKTUA

10€

Eginzazu TTIPI-TTAPAREN alde
PROIEKTU ZENBAKIA 50063

Zuri ez zaizu dirurik kostako,
guri 10 euroko laguntza emanen digute

Ez da beharrezkoa CAN edo La Caixako bezero izatea.

Nahikoa da Nafarroan erroldatua egotea,
18 urte baino gehiago izatea eta
TTIPI-TTAPAREN proiektua aukeratzea.

Bete zure datuekin orrialde honen bueltan galdetzen dena,
sinatu eta bidali TTIPI-TTAPAra lehenbailehen:

Epea martxoaren 31n bukatzen da.

TTIPI-TTAPA
KASKONTAKO BIDEA, 07 - 1
31770 LESAKA

Nahi izanez gero, internetez ere egin daiteke,
<http://www.cajnavarra.com> web orrian sartuta.

Zalantzaren bat izanez gero, deitu 948 63 54 58 telefonora.

Mila esker

TÚ ELIGES: TÚ DECIDES 2013 CAJA NAVARRA

**ELIGE
UN PROYECTO...
¡Y PARTICIPA!**

10€

Si eres mayor de 18 años y estás **censado/a en Navarra**, puedes elegir un proyecto social al cual **Caja Navarra aportará 10 euros**. Entra en nuestra página web **www.cajanavarra.com**, en el apartado 'Tú eliges: tú decides 2013': allí encontrarás todos los proyectos que han presentado las entidades sociales. Cuando hayas encontrado uno que quieras apoyar, toma nota de sus datos.

Tu elección es modificable **hasta el 30 de marzo de 2013** y, para que se haga efectiva, debes entregar esta hoja completa en cualquiera de los siguientes puntos: • Caja Navarra, Carlos III, 8 (Pamplona) • Civicam, Pío XII, 2 (Pamplona) • Casa del Almirante, calle de la Rúa, 13 (Tudela) • Sede de la entidad social que hayas elegido • Clubs de jubilados ActivosCan.

Yo,

Nombre y apellidos			
Domicilio			
Localidad		CP	
Teléfono	E-mail		
DNI [número y letra]		Fecha de nacimiento	

elijo este proyecto del programa 'Tú eliges: tú decides 2013'

Nombre del proyecto	Ttipi-Ttapa, eskualdeko komunikabideak		
Nº de Proyecto	50063	Entidad social	TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA
Quiero recibir información sobre este proyecto y entidad [sí o no]			<input type="checkbox"/>
Quiero hacer voluntariado [sí o no]			<input type="checkbox"/>
Fecha de elección	Elección entregada a (entidad social o lugar)		31770-LESAKA

Mi firma,

De autorizar la normativa sobre el acceso de datos de carácter personal Caja Navarra y Monte de Piedad de Navarra la informa que los datos de carácter personal que se recogen en esta hoja, y en especial su imagen, se van a incorporar a un fichero titularidad de Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Navarra, responsable del fichero, con domicilio en Avda. Carlos III, 8-32002 Pamplona (Navarra), con la finalidad de gestionar y controlar las solicitudes de participación en "Comuna" de Caja Navarra, para promover facilitar la información y la comunicación con las Entidades participantes, autorizando la utilización de cualquier medio incluido los medios electrónicos. Asimismo consiente expresamente y autoriza a Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Navarra exclusivamente para el cumplimiento de las fines directamente relacionados con las finalidades para las que fueron solicitados, que puede

ceder todos los datos personales a las entidades participantes de "Grupo Caja Navarra y entorno" y la Fundación Caja Navarra del mismo sentir los datos al Instituto Nacional de Estadística (INE) con la finalidad de comprobar su condición de residente en Navarra mayor de 18 años así como a "EuzkoTutun" a los efectos de verificar la elección. Queda informado de la posibilidad de ejercer en cualquier momento los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición de sus datos, en los términos previstos en la legislación vigente, pudiendo utilizar para ello cualquiera de los canales de comunicación de Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Navarra así como mediante comunicación escrita remitida por correo ordinario a la dirección del responsable del fichero anteriormente mencionado o por vía de dirección de correo electrónico: cajana@cajanavarra.com

CORTA POR ESTA LÍNEA Y QUÉDATE CON EL RESIDUO COMO GARANTÍA DE TU ELECCIÓN.

Mi justificante de elección 2013

Nombre y apellidos			DNI	
Nombre del Proyecto	Ttipi-Ttapa, eskualdeko komunikabideak			
Nº de Proyecto	50063	Entidad social	TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA	
Fecha de elección	Elección entregada a (entidad social o lugar)		31770-LESAKA	

BERTSOLARITZA → NAFARROAKO TXAPELKETA

Herriko bertsolaririk ez da izanen txapelketako final aurrekoetan

Herriko Etxeko ganbara ttiki gelditu zen final laurdenetako saiorako

Arkaitz MINDEGIA

Otsailaren 10an jokatuko zen Herriko Etxeko ganbaran hirugarren final laurdena. Bertan herriko bi bertsolari, Alazne Untxalo eta Egoitz Gorosterrazu aritu ziren kantari, Eneko Lazkoz, Aimar Karrika, Ioar Tainta eta Iñaki Alemanekin batera. Ganbara oso ttiki gelditu zen, 160 bertsozale elkartu baitziren. Saio txukuna izan zen, giro onekoa. Herriko bertsolariek beraien lana ederki egin zuten eta hasierako nerbioak utzita saioa txukun bukatu zuten. Saioa bukatu ondotik honela gelditu zen sailkapena: Eneko Lazkoz izan zen aurrena, ondotik Aimar Karrika eta hirugarren

Iñaki Aleman. 4, 5 eta 6. postuetarako lehia egon zen, baina azkenean horrela geratu zen: Ioar Tainta laugarren, Egoitz Gorosterrazu bosgarren eta Alazne Untxalo seigarren.

Herriko bertsolariak final aurrekoetatik kanpoan geratu dira, baina han-hemen segituko dute bertsoak botatzen.

Pulunpa eskola

Inauterien ondotik Pulunpa eskolako haur eta irakasleak otsaila lasai moduan eramaten ari dira, beraien klaseak eta iharduerak ederki eman eta jasoaz. Martxo edo udaberri alderako berri gehiago edukiko ditugu, baina orain bertan dagoen berri eta berrikuntzen artean hauxe da: bosgarren eta seigarren mailako ikasleak bertsoaren mundua ezagutzen hasi direla. Astean behin Estitxu Arozenaren eskutik hitz,



ARGAZKIA: NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Herriko Etxeko ganbarak bertsozalez gainezka egin zuen final laurdenetako saioan.

bertso oin eta doinuekin trebatzen hasi dira.

Eskualdeko komunikabideen mus txapelketa

Martxoaren 16an jokatuko da Aurtizko elkartearen Ttipi ttapa, Xorroxin eta Xaloaren alde egingo den mus txapelketa. Nafarroako Gobernuak subentzinoa moztu eta beste laguntzak ere murrizten ari zaizkienez, eskualdeko komunikabideek bigarren mus txapelketa an-

tolatu dute eskualde osoan. Animatu Aurtizzen egingo den txapelketan parte hartzera! Irabazten duenak Sunbillan ospatuko den finalera sailkatuko da.

Lapurrak berriz ere Aurtizko elkartearen

Aurtizko elkartearen berriz ere lapurrak sartu dira. Otsailaren 10an izan zen eta ez zuten gauza haundirik eraman, kanbiotan zeuden 80 bat euro bakarrik.



Ba al zenekien...

Pilotari afizionatuei zuzenduta Nafarroako Pilotari Federazioak bultzatuta lehen aldiz osatu den *Pelotamano* rankingean Erreka taldean ari den Ugaitz Elizalde herritarra dela Nafarroako jubenil mailako pilotaririk onena

MALERREKA

Birziklapenari buruzko erakusketa Donezteben

TTIPI-TTAPA

Martxoko lehen astean, Nafarroako Ingurumen Baliabide Zentroak mankomunitatez mankomunitate daramabilen birziklapenari buruzko erakusketa ibiltaria Doneztebeko eskolan izanen da. Erakusketaren baitan, ikasleek birziklatutako materialekin muntro bat eginen dute, artista plastiko baten laguntzarekin.

MENDIKO

SAGARDOTEGIA · ERRETEGIA · IATETXEA

SAGARDOTEGI SASOIAN
ORTZIRALA GAUETAN IREKIA!!!

SAGARDOTEGI MENUA:

- Txorizoa erreta
- Bakailoo-tortilla
- Bakailoo frijitua
- Txuleta
- Gazta eta intxaurrak

30€

ERRESERBAK EGITEKO:

948 630 302

670 365 011

IBARDIN (Bera)

MANTTALE MENUA:

- Kroketak
- Bakailoo-tortilla
- Txuleta
- Gazta eta intxaurrak

25€

Joan-etorriko garraioa negoziatzeko aukera

GIZARTEA → TURISMOA

Artelanen artean amets egiteko aukera eskaintzen du Martiornia landetxeak

Iciar Mikelperizena margolariaren lanak ikusgai daude

TTIPI-TTAPA

“Artelanen artean amets egin” ekimenaren ate irekien ekitaldia burutu zen Martiornia landetxean otsailaren 15ean. Bi emakume, Rakel Ariztegi, landetxearen jabea eta Iciar Mikelperizena, Sunbilan bizi den margolari beratarra, duela hila-bete batzuk emaitza ikusgarria eman duen elkarlan honetan hasi ziren eta zonaldeko arlo turistiko eta artistikoko dituzten lagunei erakutsi nahi izan zieten.

Iciar Mikelperizena, goiz hasi zen arte plastikoetan, diseinu grafiko eta margolan artistikoa ikasi zuen eta bere lanak 2006an hasi zen erakusketetan agertzen. Martiornia landetxeo erakusketa honetan, adierazkortasun eta kolorez beteriko lan batzuk ikus ditzakegu.

Rakel ere gazterik hasi zen ere landa turismoaren lanetan, 1998 urtean, Oitzeko Martiornekoborda etxearekin. Urte hauetan, bere anaiarekin batera, bisitariak eskaintzen dizkien instalakuntzak eta zerbitzuak zabalitzen eta hobetzen joan da, beti dekorazio eta etheen erosotasunean hobekuntzak egiten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Iciar Mikelperizena eta Rakel Ariztegi ekimenaren aurkezpenean.

BADIRA ATE BAT IREKITZEAN HASTEN DIREN AMETSAK.

“ENPRESARI LOTUTAKO IKASKETEK NIRE LAN MUNDURATZEA ASKO ERRAZTU DUTE.”

Iratxe Trevejo, Ingeniaritza Informatikoan graduatua eta MUKO langilea.



PREST



MONDRAGON UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

GOIERRI • MARTXOAK 16 larunbata, 10:30

ARRASATE • MARTXOAK 21 osteguna, 17:30

Enpresagintza Fakultatea

BILBAO, Bilbao Lab • MARTXOAK 7 osteguna, 18:00

OÑATI • MARTXOAK 9 larunbata, 11:00

BIDASOA • MARTXOAK 16 larunbata, 11:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORIATZA • MARTXOAK 7 osteguna, 18:00

ARETXABAETA • MARTXOAK 7 osteguna, 18:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea-Basque Culinary Center

DONOSTIA • MARTXOAK 16 larunbata, 10:30

ARETO BAGUSIAN • ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436

WWW.MONDRAGON.EDU/PREST



KULTURA

BERTSOLARITZA → NAFARROAKO TXAPELKETA

18 bertsolari final aurrekoetan sartuko dira asteburuan

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 16ko Zubiriko saioarekin bukatu ziren Nafarroako bertsolari txapelketako azken-laurdenak eta erabakita gelditu da finalaurrekoetan zein bertsolari arituko diren. Julio Soto iazko txapel-duna hasieratik zegoen sailkatuta eta harekin batera beste 17 bertsolarik lortu dute bigarren faserako txartela. Martxoaren 2an, larun-

bat arratsaldeko 5:30ean Atarrabiko Kultur Etxean Julio Soto, Oskar Estanga, Erika Lagoma, Iñigo Olaetxea, Iñaki Aleman eta Joxema Leitza ariko dira kantari.

Martxoaren 3an, igande arratsaldeko 5:30ean Etxarri Aranzoko Kultur Etxean Eneko Lazkoz, Xabier Silveira, Jon Barbarena, Eneko Fernandez, Ander Fuentes "Itturri"



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Aurtengo finalistak erabakitzen hasiko dira asteburu honetatik aitzinera.

eta Josu Sanjurjo.

Martxoaren 9an, larunbat arratsaldeko 5:30ean Elizondoko Lur aretoan jokatuko dute azken final aurrekoa Miguel Mari Elozegi "Luze", Julen Zelaieta, Aimar Karrika, Oier Lakuntza, Xabi Maia eta Saioa Al-

kaizak. Saio bakoitzean irabazleek eta bortz puntuazio onenek izanen dute lekua martxoaren 23an Anaitasunan jokatuko den finalean.

Finalaurrekoetarako zein finalerako sarrerak salgai dira www.bertsosarrerak.eu web gune-

an. Saio guztietan afora mugatua da, hortaz komeni da horiek lehenbailehen erostea.

Txapelketaren gaineko informazio osoa eta eguneratua www.nafarroakotxapelketa.com webgunean aurkituko duzue.

NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 13 **SARE SOZIALA**

FINALAURREKOA

<p>Martxoak 9: ELIZONDO 17,30 Lur Aretoa</p>	<p>M. M. Elozegi "Luze" Julen Zelaieta Aimar Karrika</p>	<p>Oier Lakuntza Xabier Maia Saioa Alkaiza</p>
--	---	---

SALDIAS



GIZARTEA → HIRU HERRITAR JOAN ZAIZKIGU AZKEN HILABETEETAN

Neguko berriak eta gorabeherak aipagai

Herria bizirik, eskola bizirik aldarrikatu dute inauteetan

Markel LIZASOAIN

Azken hilabeteetan, hiru saldistar joan zaizkigu. Eta doluminak agertu nahi genizkieke haien guzien familiakoei. Basilio Erasun Elizalde otsailaren 12an hil zen, 88 urtetan. Juan Bautista Elizalde Elizalde, ilbeltzaren 13an, 81 urte zituela. Martin Juaneña Aizega, 2012ko urriaren 9an, 91 urtetan. Hiru horietaz landara, 2011ko abuztuaren 8an Martinen emaztea hil zen: M^a Bautista Mari - ezkurrena Bazterrika, 85 urtetan. Goian beude.

Jaioberria

Aurre horretan, haur bat jaio da Etxezarrean, erdia Ttuttengoa erdia Apezengoa, eta goraintziak eman dizkio herriari bere ganbelatik.

Eguraldia

Negua triste sama - rra doa. Otsailera artino, ez du fundamentuz hoztu, eta elurra hil ho-

netan bakarra egin du zer edo zer baino gehixeago herrian. Euritik eta haize zakarretik, berriz, majo ase gara. Egun garbiak, ordea, gutxi, eta kazkabar egunak bat baino gehiago. Ea udaberrian denen gustuko aroa egiten duen.

Inauteak

Inote miote, txerri txar bat hil dute, batek tira, besteak tira, puxtana atera diote. Aurten inote egun asko izaten ari dira. Haurrak eta gurasoak ibiliak dira karrika errondan eskolarekin, *Egun da Santimamiñe* doinuak bertsoak kantatuz. Beintza-Labaien eta Saldiasko eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek *Eskola bizirik, herria bizirik* aldarrikatu zuten. Eta etxez etxekoa martxoaren 9an izanen da. 8an bezperako aforia. Tabernan dago izen emateko zerrenda.

Txerri hiltzeak

Txerriak hil eta puskatu dituzte zenbait etxetan, eta orain horren daukate ziztorrak, zintzilika, idortzera utziak; odolkiak eginak, eta

magrak-eta gatzez estaliak.

Etxe kontuak

Gauza jakina da Joaneok Tolarea erosi dutela eta Mantxengo bordakoek Joantrena. Otxone berritua ere salgai ote dagoen. Hona etxe hauetako lanak, berriz, franko aurretuak daude—animo!—: Irtekoak, Xunbillenekoak, Mantxene berrikoak eta Koskorrengo alabaren etxe berrikoak.

Krisia

Hemen ere gogor jo du krisiak, eta ez zaio ikusten akabilarik. Batzuk lan gutxirekin edo batere lanik gabe daude. Beste batzuei lanaldia gizendua diete edo jorjala txartua. Labrantzako produktuen prezioa, berriz, zola joa zegoen krisia bera etorri baino lehen ere, eta kasik esan daiteke mesede egin diola ekonomia beheraldi honek labrantzeroari. Politikari zenbait, berriz, joan den aspaldixkoan usanduak geneuzkanak, orain hasi da agertzen zer ziren.

BIRZIKLATZEARI
ESKER, LATAK
ABIADA BIZIAN
DOAZ



Latek bizitza luzea dute. Bota itzazu ontzien eta gainerako en edukiontzi horira.

Birzikla dezagun



Plastikozko eta metalezko ontziak, brikak eta beste hondakin bizgabeak.



Kartoiak ontziak eta papera

Honako hauen erabilera da:



EZKURRA

GIZARTEA → ARKUPEAK ELKARTEAREN ESKUTIK

Otsailaren 10ean ospatu zen jubilatuen eguna

Ezkurran 22 lagun eta Labaienen 21 elkartu ziren

Fernando ETXEBERRIA

Ezkurako jubilatuek otsailaren 10ean ospatu zuten beraien eguna. 22 pertsona elkartu ziren Barranka ostatuko bazkarian, hildako bazkideen aldeko meza entzun ondotik. Aipatu behar da Nafarroako Kutxaren "Zuk aukeratu, zuk erabaki" kanpianan parte hartu dutela guztiak. Bide batez, proiektu honekin bat egin duten 89 herritarrei ere eskerrak eman nahi dizkie Arkupeak elkarteak.

Labaiengo ostatuan, berriz, Saldias eta Labaiengo 21 bazkide.

Langabeziko datuak

Aldizkariaren aurreko alean eskualdeko langabeziaren datuak biltzen ziren. Ez dira datu baikorrak inondik inora ere, baina, aipatu behar da, beste herriekin alderatuta, Ezkurra dela eskualdean langabezia gutxien duen herria, sei langabetu baitaude.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Eskolaren etorkizuna

Irudian ikus litekeen bezala, eskolaren kanpokaldea hondatua dago oso, gehienbat, azkeneko solairua eta teilatua. Herritarrekin bilera egin du berriki udalak eta orain aukera desberdinak aztertuko dituzte.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

22 lagun elkartu ziren Barrankan, Ezkurako erretiratuen egunean.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Labaiengo ostatuan, berriz, Arkupeak elkarteko Labaiengo eta Saldiasko 21 bazkide bildu ziren.

ARANO

ELKARTEAK → MARTXOAREN 9AN

Urteko batzar orokorra egingo du San Roke elkarteak

Zuzendaritza batzordea berri behar da

TTIPI-TTAPA

San Roke elkarteak urteko batzar orokorra egingo du martxoaren 9an, larunbatarekin, 19:30ean lehen deialdi-

an eta 20:00etan bigarrenan. Ohikoaenez, batzarra joan den urteko akta irakurri eta, hala erabakitzen bada, onartuz hasiko da. 2012ko kontuen balantzea ikusi ondotik, aurtengorako kuotak onartuko dira. Bazkide berririk izateko proposa-

menak eta zuzendaritza batzordea berri eta gero, eskari-galderen txanda izango da. Iazko batzarrean, batzordeak azkeneko urtea zuela jakinarazi zuen eta seguruenerik aldatu egingo da aurtun. Bestalde, batzarrerara arrazoi justifikaturik gabe huts egin



ARTXIBOKO ARGAZKIA:

Bileraren ondotik afaria izango dute San Roke elkarteak.

lezakeenak kuotan nolabaiteko igoera izango duela jakinarazi dute zuzendaritza batzordetik

ohar baten bidez. Bileraren ondotik, nahi dutenek afaria ere izango dute.

GOIZUETA



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Eguraldiak ez ditu inauteriak zapuztu

Euripean baina inauterietako festa giro poltean joan da aurten ere. Kalderoek ederki pasatu zuten poteoan eta ondoko afarian. Mozorroek, ttikiek nahiz haundiek, ongi bustita bukatu zuten baina bere joan-etorriak egin zituzten eta zahagi-dantza eskaini zuten asteartean. Batzuk gehiagorako gogoarekin gelditu eta kontuen egunean berriz ere zahagia dantzatu zuten.

GIZARTEA → MARTXOAREN 30A BITARTEKO EPEA IZANEN DA

Herritarren laguntza elkarrekin eskatu dute herriko erakundeek

Udala, Umore Ona, jubilatua eta Guraso Elkartek bat egin dute

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Kutxa Fundazioaren *Zukaukeratu*, *zukurabaki* kanpainan parte hartzeko bat egin dute herriko zenbait erakunde eta elkartek. Zehazki, udalak, jubilatuen elkarteak, Umore Ona elkarteak eta Guraso elkarteak herriko proiektu bateratua aurkeztu dute. Horrela biltzen den diru guztia herrian egiten diren ekintzak orda-

intzen laguntzeko izango da. Orain arte, Nafarroako Kutxako bezeroa izan behar zen egitasmo hauetan laguntza emateko, baina aurtez ez. Orain ez. Ez da beharrezkoa Caixako edo CA-Neko bezeroa izatea. Proiekturen bat aukeratzeko baldintza bakarra Nafarroan erroldatuta egon eta 18 urte baino gehiago izatea da. Hau-ek aukeratutako proiektu-

tuari 10 euroko dirulaguntza bideratu ahal izango dute. Baina garbi izan behar da diru hori ez duela norberak bere poltsikotik eman behar, Fundazioak bere funtsetatik baidzik. Herriko proiektua aukeratu ahal izateko, herrian zabalduko diren orriak bete egin behar dira eta aipatutako erakunderen batean utzi.

Ba al zenekien...

Pilotari afizionatuei zuzenduta Nafarroako Pilotari Federazioak bultzatuta lehen aldiz osatu den Pelotamano rankingean Erreka taldean aritzen den Iker Salaberria herritarra dela Nafarroako infantil mailako pilotaririk onena

BIRZIKLATZEARI
ESKER, BOTILA BETI
ERDI BETETA
EGONGO DA

Beirazko ontziak
bizitza luzea dute.
Bota itzozu iglu
erako edukiontzira

Birzikla dezagun

Beirazko botilak, fraskoak
eta poteak

Honako hauek elkarrekin da:

LEITZA



UTZITAKO ARGAZKIA

Erakusketako irudietako bat.

JENDARTEA → DOKUMENTALA ERE ESKAINIKO DA

Martxoaren 8ko Emakumearen Egunerako egitaraua prest

Martxoaren 1etik 15era Nikaraguako emakumeei buruzko erakusketa jarriko da Torren

JM BARRIOLA

Berdintasun Zerbitzuak antolatuta, martxoaren 1etik 15era jarriko da Torren, *Emakumeak eskubideen alde zutik! Nikaraguako emakumeak* argazki erakusketa. Bertan Nikaraguako emakumeak beraien eskubideen alde, indarkeria sexistaren aurka eta ahalduntzearen inguruan egiten duten lana agertzen da, Mugarik Gabe elkarteko emakume taldeak egina. *Emakumeak Plazan* dokumentala, berriz, martxoaren 6an, 18.00etan proiektatuko dute Udaletxean. Ondoren solasaldia dokumentalaren egilea den Arantxa Gurmendirekin; dokumental honetan emakumeak herri kirolean izan eta gaur egun duten presentzia aztertzen da. Litalonek egirikoa da.

Itzalaldia goi tentsiko linearen aurka

Goi Tentsioko Linearen ibilbidearen inguruan REE S.A.-k oraindik argibide garbirik eman ez arren, proiektuarekin aurrera jarraitzen dute, eta edozein egunetan ingurumen inpaktuaren txostena aurkeztuko dutela adierazi dute. Egoera honen aurrean Goi Tentsioko Linearen Kontrako Plataformaik Martxoaren 7-rako itzalaldia deitu dute Goi Tentsioko Lineak zeharkatzeko arriskua duten herri guztietan, proiektu honekiko ezadosta-



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Guraso Elkarteak eta Irakasle Asanbladaren 'Ostegun Beltzak'

Hezkuntzan ematen ari diren murrizketen aurka, eta hauek salatzeke, ostegunetan beltzez jantzi eta 4:30ean hamar minutuz bi eskolen arteko espaloietan elkartzeko deia egin dute. Murrizketek hezkuntzako kalitatearen galera ekarriko dutela eta kezkatu daude. Adibidez, gela bakoitzan ikasle gehiago sartuz behar duten arreta kaxkartuko da. Ordezkapenak egiteko zailtasunak. Behar bereziak dauzkaten haurrak laguntzarik gabe geldituko dira. Klaseak prestatzeko eta irakasleen arteko elkarlana koordinatzeko denbora murriztuz. Diru sarrerak gutxitu dituzte eta beharrezkoak dira (liburuak, fotokopiak, e.a.) Garbi utzi nahi dute beharrei erantzuten dien hezkuntza behar dela, eskubideak direlako eta eskolako alderdi guztiak guraso, ikasle eta irakasleak, kalitatezko eskolaren alde jarraitzeko asmoa dutela adierazi dute.

suna adierazteko. Deialdian Martxoaren 7an, osteguna, arratsaldeko 20:00etatik 20:30etara itzalaldia burutzera deitu dute, eta herriko plazan "eltze jotzea".

Haurrentzako masaje tailerra

8 hilabete bitarteko haurrentzat eta bere guraso edo zaintzaileentzat masaje tailerra antolatu dute eskualdeko

hezkuntza zentroek, Pediatria Zerbitzuak eta Gizarte Zerbitzuak. Martxoaren 6tik apirilaren 10era bost saio egingo dira, asteazketan 11:00etatik 12:30era Udaletxeko lehenengo solairuan. Edurne Lamuedra, gizarte eta nazioarteko haur masaje elkarteko hezitzaileak eskainiko du ikastaroa. Izen ematea martxoaren 1a bitarte egiten ahal da, Gizarte

Zerbitzuetara deituz (948 510840).

Korrika Kulturala

Korrika kulturalaren baitan, *Gazta zati bat* dokumentala ikusteko aukera izan zen zinean otsailaren 15ean ostira-lean, eta igandean berri kontzertua eskeini zuten zinean bertan, pelikula beraren soinu bandarekin. Guztira 150 herritarrek gozatu zuten saio berezi hauetaz.

Ibon Urtiaga
Fisioterapia Zentrua
www.fisioibon.com
948 250 221
Erlotokieta, 9 • IRUNEA

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN
facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

photolekun
Ricardó Bosch - Argazkilaria
2013 ko JAUNARTZEAK
1.- Sesioa + CDa
2.- Lehenengoa + 20x20 albuma + 16 oroigarri
3.- Lehenengoa + 25x25 albuma + 16 oroigarri
4.- Hirugarrena + kutxa edo 2 album txiki
Etorri eta galdetu
Herriko Plaza, 4
31870 LEKUNBERRI
Tfnoa: 948504370
658737731

ARESO

UDALA → IZUGARRI BALDINTZATZEN DU OBRAK EGIN AHAL IZATEA

Dirulaguntzak izoztu ditu Gobernuak eta zenbait proiektu zalantzan jarri

Egur loteak eskatzeko epea martxoaren 8ra bitarte zabalik

Juana Mari SAIZAR

2013ko aurrekontuak urte hasieran onartu zituen udalak, bertan proiektu batzuk ere pentsatuta zeuden, basko dirulaguntzarekin egiteko asmoa zegoena. Baina dirulaguntza horiekin kontatu arren orain sorpresa hartu dute, izan ere, 2015era arte dirulaguntza horiek izoztu egingo dituztela adierazi baitute Nafarroko Gobernutik. Hau ikusita, ez dakite zer egin zeren alde batetik nahiz eta proiektuak egin agian dirulaguntzak ez baitira inoiz iritsiko. Bestalde bigarren aukera dirua ailegatu arte itxoi-tea da eta gerora proiektuak egitea. Udalaren hitzetan dirulaguntzak izugarri baldintzatzen du edozein motako obrak egin ahal izatea. Orain-txe bi dira garrantzitsuenak; Lehenik Merkuko bidean bi eskoilera egitea, bidea oso estu baitago lur erorketen ondorioz, eta bigarrena Plazaolako natur bidearekin lotzen den oinezko ibilbidea egitea, Areson hasi eta Leitzako bide-ara arte.

Egur loteak

Etxeetarako egur loteak eskatzeko epea zabalik dago. Interesa dutenek martxoaren 8a



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Dirulaguntza ezak obrak zalantzan jarri ditu herrian.

baino lehenago eman beharko dute izena udal-letxean. Aurten pagoa eta haritza izango da, eta utezar parajeen botako dituzte. Beti bezelaxe 3 aukera emango dituzte egurra etxeratzeko; alde batetik zutik tokian botatzea, bigarrena pista ondora ateratzea eta hirugarrena etxe ingurura ekartzea, bakoitzak daukan prezio kostoarekin.

Gas errebisioaren iruzurra

Aurreko astean herriko biztanle batzuk abisua emanda lau gizon harrapatu dituzte butanoaren errebisioa pasatzearen aitzakiaz herriarrei iruzur egiten. Azkenean baina, Guardia Zibillak ezin izan zituzten atxilotu eta inongo zigorrik gabe alde egin zuten. Dirudienez herriarren etxeetara butanoaren errebisioak egitean ate joka ibili zi-

renean, etxe dexentetan errebisioa egin eta dirua kobratu zuten. Behin iruzurra eginda ordea Repsol butano enpresako langileak ez zirela konturatu ziren herritarrek eta Guardia Zibila etorri zen galderak eta paperak eskatzera. Hala ere, inolako diru bueltatzerik ez omen zuten lortu, dirua borondatez eman zutelako herritarrek eta hori ez omen da delitua. Gehienez 150 euroko isuna eta denuntzia jarri daiteke.

Horren harira aipatu orain oso nabaria omen den beste iruzur mota bat, argi kontadoreak aldatu beharra dagoela eta, hori aprobetxatuz, han hemenka omen dabilzala iruzurgileak. Begiak erne eduki eta etxean sartu baino lehen ziurtatu ea enpresakoak diren edo ez, hau ez baita herrian horrelakorik gertatzen den lehen aldia.

BIRZIKLATZEARI
ESKER, ETXeko
TRESNA ELEKTRIKOEN
BIZITZA LUZEA DUTE



Tresna Elektriko eta
Elektronikoen Hondakinak
(TEEHak) zure etxetresna berria
erosten duzun denda berean,
edo erabili zure
Mankomunitateko doako
zerbitzuak: tamaina handiko
hondakinen bilketa eta
garbigune mugikorra

Birzikla dezagun



Garbigunea edo objektu
handien bilketa
Tresna elektriko eta elektronikoen
hondakinak, objektu handiak,
altzariak, jostailuak, etab.

Hemenka hauren etxetik: 100



BAZTAN

KULTURA → HIRU MAILATAN BANATUA

Apirilaren 21eko Lore Jokoetarako literatur lehiaketa antolatu dute

Martxoaren 22a baino lehen aurkeztu beharko dira olerkiak eta ipuinak

TTIPI-TTAPA

Heldu den apirilaren 21ean Lore Jokoak antolatu behar dituzte Iru-ritan Dorrea Elkartek, Baztandarren Biltzarrak eta Baztango Kultura Batzordeak elkarlanean. 1879. urtean Hego Euskal Herrian lehenbiziko aldiz Lore Jokoak Elizondon ospatu zirela gogorazteko, egun guztiko ekitaldia antolatzeke asmoa dute: laxoa partida, dantzariak, txistulariak, arratsal-

dean bertso saioa Andoni Egaña eta Uxue Alberdirenkin, lehiaketa hartarat aurkeztu ziren poemen errezitaldia...

Bestaz gain, eta 1879. urtean egin zen bezala, literatur lehiaketa ere antolatu dute. Baztandarren Biltzarra izanen da horren arduradun. Literatur lehiaketaren gaia 1879. urteko bera izanen da: Euskaldunen gauzarik maitena. Martxoaren 22a baino lehen aurkeztu beharko dira lanak Elizondoko Arizkunenean (postaz, Jaime Urrutia karrika 17, 31700 Elizondo) ohiko sistema erabiliz. Baztango den edozein pertsonak parte hartzen ahal du. Bi kategoria edo atal iza-



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Han eta hemen, herriz herri bikain joan dira inauteriak

Baztango kasik herri eta auzo guzietan ospatu dituzte inauteriak. Euriarekin zailantza handiak izan bazituzten ere, Erratzuko damak atera ziren (argazkian), bertze hainbat moztorro inguruan zituztela, Arizkungo hartza eta moztorroak, Elizondoko karroza ikusgarriak (Madrileko movida, Bilboko txikiteroak, eskolako dantzariak, jeke arabiarra, Arkupeak elkartekoen bidaia, Non dago Wally?...). Euri eta haizearekin jende gutiago hurbildu zen ikustera, baina moztortuta atera zirenek ederki pasatu zuten.

nen dira. Batetik, poesia/olerkiari dagokiona, eta bertzetik, ipuinari dagokiona. Atal bakoitza adinaren arabera ere sailkatuko da, A maila (6-12 urte bitartekoak), B maila (12-18 bitartekoak) eta C maila (18 urtetik goitikoak).

Epaimahaia Baztandarren Biltzarreko kideek osatuko dute eta modalitate bakoitzean, liburuak erosi ahal izateko 50 euroko bonoa izanen da irabazlearendako saria. Sariak apirilaren 21ean banatuko dituzte.

BIDELAGUN

Emakume zaintzaileendako tailerrak prestatu dituzte Elizondon

TTIPI-TTAPA

Bidelagunek emakume zaintzaileendako tailera antolatu du. Bina orduko zazpi saio egingen dira martxoaren 7, 14 eta 27an eta apirilaren 4, 11, 18 eta 25ean, arratsaldeko 4etatik 6etara Bidelagun elkartearen egoitzan, Elizondoko Osasun Zentroaren ondoren. Nahia Psikoterapia zentruko Mirentxu Goienetxek gidatuko ditu saioak. Izen ematea martxoaren 4a baino lehen egin behar da 948 581327 telefonora deituz edo bidelagun@hotmail.com helbidean. Izen ematea 25 euro gostako da eta gainerakoa Bidelagun elkarteak jarriko du.

MENDIALDE
M. Jatorria

T. 948 453 060 - AMAJUR
www.mendialdea.com

CARLOS
GARAIKOETXEA
ETXENIKE
abokatua

Santiago, 59 2C - ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 816

MENDI
ostatua

Santiago 25
948 500 313
ELIZONDO

ANEXITONEA
Turismo

24 ingela hiruaretan - Apartaldea
Aste gutxiak gela zuzentzen - Hiri musikala eta TI
Gela berria saski- eta tenis zerbitzuarekin

Bravio Inarte 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853
hostal@anexitonea.com • www.anexitonea.com

SEMPRE
DATUCELAY

ttiipi bartela

% 10eko
DESKONTUA
bateria eta
amortiguadoretan

GIZARTEA → KONTRABANDISTEN ESKULTURA HIZPIDE

Emakumeak errespetatzea eskatu du Udaleko Berdintasun Batzordeak

Behingoz, emakumeen lana ikustaraztea eskatu du

TTIPI-TTAPA

Elizondon paratu zituzten eta berriz paratu nahi dituzten kontrabandisten eskulturen harira bere iritzia plazaratu du Baztango udaleko Berdintasun Batzordeak. Batzordearen erranetan, Elizondoko herriko batzarrak artistari hiru eskakizun bete zedin erran zion, Baztango harri gorriz egina izatea, irudietako batekburukoa eramatea eta emakume bat irudikatzea, baina bi lehenbizikoak bete baldin ba-

dira, ere, emakumerik ez da ageri.

Batzordearen ustez, Nafarroako Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Planarekin eta Estatuko Berdintasun Lege Organikoarekin talka egiten du egoera honek eta afera garrantzitsua da, «ez bada legeak diolarako, behintzat biztanleriaren %50a izateagatik zor zaigu errespetua eta arlo publikoan, behingoz, presentzia izatea eta emakumeen lana ikustaraztea. Landa eremuan ere emakumeek sufritu izan dute berdintasun aukera falta hori».

Berdintasunerako Udal Batzordeak ez du bertze aukerarik galdu nahi, «aspaldi erabaki



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Zuhaitzaren Eguna ospatu du Baztan Ikastolak

Baztan Ikastolako ikasle, irakasle eta gurasoek parte hartu dute aurten ere Zuhaitzaren Egunean eta bertako hainbat zuhaitz landatu zituzten Bagordi inguruan. Kuartelekozelaitik abiatu eta oinez igo ziren Bagordira, eguraldi bikaina lagun zutela. Pixkanaka baso ederra sortzen ari dira inguru horretan.

genuen emakumeen kontrako erasoei aitzinerat egitea eta eraso jonek, berriz ere, izkutatzen gaitu arlo publikotik baztertuz». Emakumeek kontrabandean parte hartu zuten eta hori ukatzerik ez dagoela dio Berdintasun Batzordearen idatziak, «ez gaude ados emakumearen presentzia

baztertzen duenarekin, emakume zein gizonentzat berdintasun aukerak defenditzen ditugulako, ez dugu horrelako egoerarik gure herrietan onartzen ahal, ez soilik legeak babesten gaituelako, baizik eta justizia sozialean oinarritzen den aukera berdintasunean sinisten baitugu».

Aukeren Azoka martxoko lehen asteburuan

Bertan merkatarien elkarteak Aukeren Azoka antolatuko du martxoaren 2 eta 3an Elizondoko udal pilotalekuan. 16 komertzioek parte hartuko dute eta Santiren taloak ere izanen dira frontoi sarreran.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

LEKUNBERRI | BERA (SAN JOSE) | LESAKA | ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | BETELU
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

BAZTAN

GIZARTEA → UDAZKEN-NEGUKO BALANTZEA EGIN DU

Emakumeari buruzko bi dokumental emanen ditu Erratzuko Kultur Elkarteak

Uholde handiaren mendeurrena gogoratuko dute ekainean

TTIPI-TTAPA

Zinemak ere badu leku Erratzuko Kultur Elkartearen programazioan eta martxoan emakumeen nazioarteko egunaren karietarat bi dokumental ikusteko aukera izanen da lixutegian, 21:00etan: *Digna rabia* martxoaren 1ean eta *Indomables* martxoaren 15ean.

Bertze aldetik, herria xehatu zuen uholdearen mendeurrena beteko da ekainean eta hori gogorazteko hainbat jarduera prestatzen ari dira elkarteak, «dena auzolanaren plantamenduari jarraituz, kultur jarduera herritar, partehartzaile eta autogestionatuak egitea posible dela azpimarratuz; elkarlanaren bitartez jen-

dartearen kultur asetze maila betetzea posible dela erakutsiz». UdaZEN-NEGUKO ekitaldien balantze ona egin du elkarteak. Iaz hasitako kantu zaharren tailerrak bere horretan segitzen du eta 20 bat lagun elkartzen dira astelehenero kantutegi berria osatu asmoz; ortziral eta larunbateko euskal dantzen tailerrak ere osasun ona erakusten du eta FanfaRonak musika bandako lagunek gaugerero dozenatik goiti emanaldi egin dituzte azken hilabetetan. Aмарik gabeko sukaldaritzat tailerrak ere arrakasta izan du eta azaroan hasi zenak martxora bitartean iraunen du. Irudi digitalaren trataerako tailerrak ere bere saio kopurua handitu egin du jendearen beharrak asetzeko. Idazleekin solasean ekimenaren baitan Garazi Kamio Anizen eta Ernesto Prat herriko lixutegian izan dira bere lanak aurkezten.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Arkupeak elkarteko Elizondoko bazkideek Galartzan...

Otsailaren 7an jokatu zen Arkupeak elkarteak antolatutako Elizondoko mus txapelketa eta hurrengo egunean bazkideek bazkaria egin zuten Galarza jatetxean. Bazkaria bukatutakoan irabazleei sariak banatu zizkieten. Jose Mujika eta Juan Angelek osatutako bikoteak eraman zuten garaikurra etxera. Juanito Larre eta Tomas Torres izan izan txapeldunordeak. Dantzan ere ederki ibili ziren erretiratuak, argazkian ageri denez.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

...eta Baztangoizakoek Mendialde jatetxean bazkaldu zuten

Otsailaren 14an, Arkupeak elkarteko Baztangoizako bazkideek Mendialde jatetxean bazkaldu zuten. Mus txapelketan, Antonio Arburua eta Loretxo Agirrek garaitu zituzten finalean Jose Mari Garaikoetxea eta Jesus Mari Urrutia.



Lur
diskoteka

musika berexia eta
giro bestazalea
Elizondoan, BAZTANen



garagardategia
larunbatero, arratvaldeko
Belatik aurrera
ERRESERBAK: 948 581 883




martxoak
9
jarunbata

NAFARROARĶO BERT SOLARI
TXAPELKETA Finalurrekoa · 17:30h
OIHAN VEGA · 02:00h · Sarrera: 6€





Zendow#neo aurkezten dugu
Errefortzu termikoa duen PVC-ko
perfil berria



$U_f=1,0$
 $W/m^2\text{°K}$

U_f = Perfilak duen isolamendu termikoa
(Gero eta U_f txikiagoa, isolamendu hobea)

ALUMINIOA
ZUBI TERMIKOAREN
HAUSTURARIK
GABE
Aluminio sin
rotura de
Puente Térmico



$U_f=5,6$
 $W/m^2\text{°K}$



%560
isolamendu
gutxiago

ALUMINIOA
ZUBI TERMIKOAREN
HAUSTURAREKIN
MARKOA 77 mm.
(Poliamida > 18mm)
Aluminio con rotura
de Puente Térmico
Marco 77mm.
(Poliamida > 18mm)



$U_f=3,1$
 $W/m^2\text{°K}$



%310
isolamendu
gutxiago

PVC ESTANDARRA
(Altzainuzko errefortzua)
PVC estandar
(Refuerzo de acero)



$U_f=1,3$
 $W/m^2\text{°K}$



%30
isolamendu
gutxiago

**PVC
ERREFORTZU
TERMIKOEKIN
Zendow#neo**



$U_f=1,0$
 $W/m^2\text{°K}$

**ISOLAMENDU TERMIKORIK HAUNDIENA
DUEN PERFILA DAUKAGU!!**

ETORRI GURE INSTALAZIOAK ETA GURE SISTEMA BERRIA IKUSTERA!

Leihoak | Kontraleihoak | Sarrerako Ateak | Itxidurak | Pertsianak | Moskiterak

Ordoki ind. • ARIZKUN | T. 948 453 259 | F. 948 453 423 | betikopvc@betikopvc.com | www.betikopvc.com

ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → LANBIDE BEREZIA

Luthier tailerra ireki berri du Xabi Luberriagak

Musika tresnak egitea eta konpontzea da bere lana

Margari eta Koro

Luthierena ez da sobera lanbide ezaguna: musika tresnak egitea eta konpontzea da beraien lana. Eta hara non lutheri-tailer bat ireki berria du Zugarramurdin Xabi Luberriagak.

Orain arte zurgintza lanekin tartekatuta du Xabi luthier lana, bainan hemendik aintzina denbora osoz aritzea deliberratu du.

Orain arte gitarrak, gitarra elektrikoak, biolinak eta albokak egin izan ditu, eta orai trikita bat egiteko proiektu

tu bat badu, trikitilari batzuen laguntzarekin.

Beraz, gisa hunkatu lan baten behar bain bazaudete, jakin Luberria etxean, egiten dituztela. Telefonoa hau da: 647 064 064, eta web orria hau: www.luberriaga.com.

Aconcaguan

Juanito Oiartzabal eta ETBk hain famatua egin duten "El conquistador del Aconcagua" saioan bezala, han barna ibili ziren baita ere Aline eta Xabiartxo. Gan aitzin, entrenatzen arituak ziren, mendian 20 kiloko pisuarekin ibiliz, eta ondorioz xarmanki egin zuten Aconcaguako gantorra. Hamalau lagun abiatu ziren, eta horietako bederatzik lortu zu-



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Dozena bat lagun baserri ibili dira inauterietan

Azken urteotan ihauteko egunen arrakasta aldatzen ari da, jende gehiago mugitzen baita igandean, herrian berean, larunbatean baino (mendian). Halere, dozena bat lagun mendiz-mendi ibili ziren baserrietara musika eta alaitasuna eramaten. Argazkian Kaminoko-bordan ageri dira, Genobeba eta Mattinekin.

ten tontorrera ailegatzea. Gainera, eguraldiarekin izigarri suerte ona izan zuten, tontorrean oren bat egoteko aukera izan baitzuten, eta hori guttitan lortzen omen da.

2.700 metrotik abiatu ziren, eta 4.200 metrotan eman zuten oinarriko kanpamendua (Plaza Argentina deitzen dena). Hortik hamar egun behar izan zituzten 6.962 metro dituen tontorreat igateko. Zailtasun haun-



UTZITAKO ARGAZKIA

Aline eta Xabiartxo Plaza Argentinako kanpamenduan.

dienak pisua, oxigeno du zero azpitik) izan falta, eta hotza (20 gra- omen zituzten.

SENPERE

GIZARTEA → OTSAILAREN 16KO ELKARRETARATZEA

Euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatu dute herritarrek

TTIPI-TTAPA

Euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatzeko, Senpereko euskaraz Bai taldearen deialdiari erantzun zioten herritarrek otsailaren 16an. Senpereko Euskaraz Bai taldeak udaberrian izenpedura bilketa bat antolatu zuen, "Senpere" herriaren izen ofizia-

la bilaka dadin. Ofizialki Herriko Etxeari izenpedurak biltzen dituen txostena itzuli zitzaion egun horretan.

Izenpedurak itzultzeaz gain, Iñaki Viquendi artista senperrak lagundurik performantzia artistiko bat burutu da. Goizean goiz, forma geometriko bereziak zi-



UTZITAKO ARGAZKIA

Euskaraz Bai taldekoek Senpere osatzen duten hizkiak jarri dituzte Oxtikienian.

tuzten panelak zabaldu dira herriko karrika nagusian, herritarren haridura sortuz. Elkarretaratze momentuan, "Euskaraz Bizi nahi dut" banderolak despregatu dira eta herritar bat banan-banan panelen bi-

la joan da. Panelak elkarturik Senpere izena agertu da, molde artistiko batean idatzirik.

Ondoren, delegazio bat herriko etxean sartu da eta hautetsi bati txostena itzuli dio. Hautetsiak zin egin du ho-

rren berri emanen diola auzapezari, eta gaia kontseiluan aipatuko dela.

Elkarretaratzea bukatzeko, Oxtikienian Senpere izena osatzen duten zazpi hizkiak partan kolatu dira.

GIZARTEA → EHUNKA BERTSU EGIN ZITUEN

Omenaldi hunkigarria egin zaio Larreko bertsulari zenari

Otsailaren 5ean
hil zen Jean
Pierre Soudre,
88 urtetan

Franck DOLOSOR

Afrikako erran zahar batek dio gauza bera direla adin haundiko lagun bat pausatzea eta suak liburutegi oso bat suntsitzea. Gogoeta horiegi aztatu da otsailaren 5ean Jean Pierre Soudre *Larreko* zendu delarik 88 urtetan, bat batean, goxoan, lbarrungo Ixtilartea sortetxean. Laborari ibar-rundar hau 1924ko irailaren 12an sortu zen. 1958an Kattalin Iriart saratarrarekin ezkondu zen eta sei seme alaba izan zituzten. Bertsuzaletasuna gazte gaztea zelarik etorri zitzaion. Noiz nahi bertsuak etortzen zitzaizkion bururat eta berehala paperean idazten zituen. Haurra zelarik bertsuak entzuteko parada izan zuen herrian eta etxean berean Matxin Irabola senpenter bertsulariaren ahotik. Ixtilarteko seme zaharrenak 11 urte bertzerik ez zituen Urdazuri aldeak sekulan eman duen bertsulari haundiena zendu zelarik. Halere, Matxinen umore onaz eta ironiaz biziki ongi orentzen zen Larreko.

Irabola bide bera segitu zuen Soudrek eta gisa huntan ehunka bertsu asmatu eta idatzi izan ditu hainbat gairen inguruan. 1954ean bi sari eskuratu zituen Eskualdeen Biltzarren esku-

tik Senpereri buruzko eta "Arrotzen manerez" saillekin. Bi urte geroago, Herria astekariak aipalatu zuen zoingeiagokan lehen saria eskuratu zuen Axularri buruzko bertsu sailarekin.

Senperen besta guti ospatzen da Larrekoren bertsuak kantatu gabe. Hitz bidez adinekoak eta gazteak lotzen erdie-tsi zuen Soudrek. Mar-txel Brave eta Jean No-el Bessonart kantari senp-ertarrek musikatu dituzte Larrekoren zonba-it bertsu eta "Senp-ertar-rak gare" ezagunena bilakatu da eta herriaren ikurra eta himnoa bihurtu da. Joan den otsaila-ren 9an Senpereko Jon-doni Petrikari elizan ospatu ziren Larreko zena-ren ehorzketetan kantu alai hau eskaini zuen Bra-ve eta Bessonart bikote-ak. Hil kutxaren ondoan kitarra entzutea eta ho-lako "alegeratasuna" ikustea harrigarria egingo zitzaion askori. Dena den, Larreko mundu huntatik baldin badoa bere obra gelditzen da. Larrekok berak zioen «eskuararik gabe, kantuz ari gabe gu deusik ez gare!». Hori go-goan harturik, ehorzke-tan berean bertsutu kan-tuz aritu ziren Jean Lou-is Hariñordoki Laka eta Fermin Mihura. Azkain-darrak azpimarratu zuen Larreko zenak zuen atxi-kimendua Senpere, Eus-kal Herria eta familiaren-tzat. «Gaur herioak ez de-zake hauts gure arteko lokarria» argitu zuen Mi-hurak. Baigorriarraren



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Larreko zena Jean Ithourria pilotazale eta sortze lagunarekin joan den abenduan. Biak lbarrun auzoan sortu ziren 1924an.

ahotik hitz hauek entzun zirenekin: "Agur Larreko/ Eto-rrizauzu/ Zeruratzeko ore-na/ Pozik ditaizke Matxin eta Panpili zena/ Hiruko-tean zu zinela koz pertsu-laririk gaztena/ Heien bi-dea hartu zinuena baitzen bide ederrena". Bertzal-de, Lakak oroitarazi zu-en Larrekoren oihartzu-na urrun heltzen zela He-rria astekariari esker. Izan ere, herrietako berrien ar-tean aintzeta agertzen ziren Larrekoren bertso-ak. "Senp-ertarrentzat maiz baizinu zerbait poli-t botatzeko/ Hainbeste urtez arizan zira nola egin eskertzeko?" galdetu zu-en Lakak.

Urteak ez dira debal-deiragan eta ehunka bertsu sakon bezain maita-garriak asmatu ditu

ibarrundarrak. Batzuk gu-re herriaz: "Urxuri gaine-rian zoin den eder Senpe-re/ Hogoiehun jende goi-ti han bizi gare / Eskual-dunak gare oraino hale-derik gabe, eskuararik ga-be Senperen deus ez ga-re". Bertze batzuk haur denboraz: "Ibili gare es-kolan / Ginauzkatela ika-rran / Trebe etxeko mintzai-ran / Gu ezin heziz erda-ran / Segur bazuten aski lan"; eta azken hau Eus-kal Herriaren etorkizunaz "Nafar, Xubero, Lapurdin / Gazteak juan zauzku ber-din / Herri hau saldu ez dadin / Lana behar da Euzkadin!".

80ko hamarkadan "Nere pertsuskak" bildu-ma plazaratu zuen La-rrekok. Oxtikenekoak kul-

tura elkarteak bi urtero apailatzen duen kantu xa-harren bazkarirat gogo-tik joaten zen eta lagun-tza eman zuen ere "Sen-peretik Senpererat" eta Matxin Irabola biogra-fia osatzeko. 2012ko udazkenean, Larrekoren 160 perla bildu eta ager-tu ditu liburu batean Ez da Musik Senpereko kul-tura elkarteak. Obra ba-lios hunekin Lapurdi eta Senpere euskara bizi eta garbian hobeki ezagu-tzeko parada du irakur-leak. Mende bateko his-toria ere denen esku da-go liburu huni esker.

Ez da dudarik senper-tarrek eta, oro har eus-kaltzaleek, ainitz zort di-ogula *Larreko* zenari! Go-resmenak, milesker eta ez adiorik!

ARMUA JATEENA

T. 948 599 131
Zuzendaritza ordea: 3. eta
LEKALDE

ttipi-ttapa
info@ttipi.net
(0034) 948 63 54 58

MONTXO OSTATVA
ТАВЛКО-БЕНДА

Plater-konbintzuek | Ojortekook | Pitxook | Menuak onkarguz
Egunero irekia 09:00etatik 02:30era - Datorrenetik 2 km. tara
ANZAN-BORDA - URDAZUBI | 948 599 039

SARA

GIZARTEA → MOZORROAK

Ihaute aitzineko asteburua animatua izan da

Igande goizean dantzak eta zan pantzaren auzia entzutera jende ainitz plazaratu zen

Joana GUERENDIAIN

Ihaute aitzineko asteburua erran bezala animatua izan da. Larunbatean gazteek auzoak alaitu dituzte beren kantu, musika eta dantzekin, eta harrera ezin hobea izan dute etxeetan. Igande goizean, aroa lagun izanki, heldu eta haur frango hurbildu dira mozorroturik dantzak ikusteko eta zan pantzarren auzia entzuteko. Sarako

kantarienzat aukera izan da *Blues Brothers* filmaren pasarte batzuk mimatzeke.

Ondotik, jende guzira joan da Lur Berrira 3 eskolek prestatutako bazkariak gozatzeko. Iluntzean gazteek berriz hartu dute karroa Urtxola, Agustinenborda, Portua eta Trinketea animatzeko.

Mus txapelketa

Martxoaren 2 an Sarako Izarra errubi elkarrekin, mus txapelketa bat antolatzen du Lur Berrigelan. Txapelketa arratsaldeko 2etan hasiko da, izen emaitzak 5 euro balio du muslarika. Arratsean, 8etatik landa, deneri idekitako afa-ri bat antolatua da eta



ARGAZKIA: JEAN POUYET

Blues Brothers filmako pasarte batzuk dantzatu zituzten gazte mozorrotuek.

txartelak 20 euro balio-ko du.

Kontzertuak

Beti ere martxoaren 2an, larunbata gauarekin, kontzertuak izanen dira Urtxolan. Talde gonbidatuak *Dama* (metal/pop) talde italiarra eta *Lekarozko Su Etena* (hard core/metal/punk) taldea dira.

Eskuen lana

Eskuen Lana elkarrekin martxoaren 10ean, igandearrekin, Jusketa eta eskulan merkatu bat antolatzen du. Hor erosten ahalko dira esku lan, josketan beharrezkoak diren materialak. Lur Berrin eginen da, atek idekiak izanen dira goizeko 10etatik arratseko 7ak arte.

Kirol emaitzak

Urtxintxak eskubaloi taldekoak otsailaren 9an Bokalaren kontra aritu dira, galdu egin dute 19-11.

Sarako Izarra taldeko errugbilariak, otsailaren 17an, Zibururen kontra aritu dira Saran, bi ekipek galdu egin dute, erreserbak 3-7 eta lehenak 15-23.



Antonia GOLDARAZENA OTEGI

Lesakan hil zen 2013ko otsailaren 16an
87 urte zituela

*Ama zu joan zara
Jaunak deituta
senarra ta seme-alabak
hemen gaudeta
zure ilobak ere
negarrez daudeta
gora begiratzen dugu
ta etzaitugu ikusten eta
lasai egon ama
zurekin gaudeta
agur ama ta ikusi arte
agur ama ta ikusi arte*

ZURE FAMILIA

Rekordatorioak
egiten ditugu

ttipi-ttapa

Koskontako Bidea, 7-1
LESACA | 948635458





EZKONTZAK

Josu Iturbide Ibarra eta **Monike Olazabal Tapia**, Igantzi eta Irungoa, otsailaren 9an Igantzin.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Ethan Guilsou, Sarakoa, otsailaren 2an.

Andoni Lasaga, Sarakoa, otsailaren 2an.

Maika Marin Imaz, Sarakoa, otsailaren 5an.

Ane Jauregi Martxitorena, Sunbillakoa, otsailaren 6an.

Bominika Salaverria, Sarakoa, otsailaren 12an.

Aroa Ibarra Jaimerena, Sunbillakoa, otsailaren 12an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Gérard Mousseau, Sarakoa, urtarrilaren 27an, 53 urte.

Juana Iturralde Barberena, Elbetekoa, otsailaren 7an, 114 urte.

Fermin Beola Agesta, Etxalarkoa, otsailaren 8an, 65 urte.

Isidoro Gamio Etxenike, Gartaingoa, otsailaren 8an, 89 urte.

Caridad Artazkoz Urtxurute, Doneztebekoa, otsailaren 7an, 91 urte.

Emilio Sagastibelza Zabaleta, Leitzakoa, otsailaren 8an, 86 urte.

Jose Hualde Iriarte, Legasakoa, otsailaren 8an, 85 urte.

Pedro Eugi Elizaintzin, Gartaingoa, otsailaren 9an, 83 urte.

Jose Maria Etxepare Irisarri, Legasakoa, otsailaren 11n, 64 urte.

Basilio Erasun Elizalde, Saldiasakoa, otsailaren 12an, 88 urte.

Juan Sanzberro Galarregi, Lekarozkoa, otsailaren 14an, 81 urte.

Maria Josefa Mariñelarena Iraizoz, Donamariakoa, otsailaren 15ean, 91 urte.

Antonia Goldarazena Otegi, Lesakakoa, otsailaren 16an, 87 urte.

Juana Erreka Petit, Dantxarinakoa, otsailaren 17an, 94 urte.

Angel Mitxelena Burgete, Arantzakoa, otsailaren 19an, 85 urte.

Julia Alduntzin Zabaleta, Leitzakoa, otsailaren 20an, 89 urte.

Jean Pierre Soudre Larreko, Senpekerkoa, otsailaren 5ean, 88 urte.



Amparo BERLANGA PALOMARES «La Valenciana»

Lesakan, 2013ko otsailaren 3an

Zure umore bizia eta expainetako irria beti gurekin egonen dira gure yaya maitagarria.

REBOLLO - GARCIA
ZURE FAMILIA



Jose Luis MENDIBURU MARTIN

I. URTEURRENA

Zubietan, 2012ko martxoaren 15ean

Dena onari semigialak, adieraz eta gerozate haizak.

Bere aldeko meza martxoaren 17an, 10:00, Zubietako elizan.



SOKATIRA → MARTXOAREN 3AN JOKATUKO DA BIGARREN JARDUNALDIA URDULIZEN (BIZKAIA)

600 kiloko Euskadiko txapelketan ari da Amaiurko sokatira taldea

Kategoria bakarrean ariko da aurten

TTIPI-TTAPA

680 eta 640 kiloko kategorietan ez zen lehen sartu, baina Amaiurko sokatira taldea Euskadiko txapelketan parte hartzen ari da 600 kiloko kategorian. Kategoria honetako lehenbiziko saioa otsailaren 16an jokatu zen Ezpeletan (Lapurdi).

Amaiurrekin batera bertze hameka talde ari dira pisu honetan: Ibarra (Gipuzkoa), Abadiño A eta B (Bizkaia), Ñapurak (Ezpeleta, Lapur-



ARGAZKIA: LEGARRA
600 kiloko kategorian bakarrik ariko da aurten Amaiurko sokatira taldea.

di), Murueta (Bizkaia), Baiona (Lapurdi), Basaburua-Imotz (Nafarroa), Sokarri (Arrigorriaga,

Bizkaia), Txantrea (Nafarroa), Iparralde (Urduliz, Bizkaia) eta 6 Con-

ceyos (Asturias, Espainia). Ezpeletako lehen saio horretan etxeko taldea, Ñapurak, nagusitu zen. Amaiurrek, be-

rriz, zazpigarren postuan berdindu egin zuen Baionako taldearekin, beraz, txapelaren borrokatik urrun.

600 kiloko bigarren jardunaldia martxoaren 3an jokatu da Urdulizko pilotalekuan eta azken saioa martxoaren 9an Ibarra kiroldegian. Ondotik, martxoaren 16an jokatu da gizonezkoen 560 kiloko txapelketa saio bakarrean, baina hemen ez da Amaiur lehiatuko. Martxoaren 23an, 600 kiloko txapelketa misto jokatu da Laudion (Araba), hemen ere Nafarroako ordezkariarik gabe.

TXIRRINDULARITZA → OTSAILAREN 22 ETA 23AN

Patxi Vila omendudute Beran

TTIPI-TTAPA

Patxi Vila Errandonea txirrindulari profesional ohiak omenaldia jaso du bere sorterrian, Beran, otsailaren 22 eta 23an. Herriko erakunde eta taldeekin harremana duten pertsonak eta bere lagunak prestatu zituzten ekitaldiak, Berako Herriko Etxearen laguntzarekin.

Berako txirrindulariak bere lehen pedalkadak Club Ciclista Beratarra taldearen eskolan eman zituen eta Gure Txokoa, AHV, Sicesal eta Caja Rural taldeetan aritu zen gazte den-

boran. Hemendik profesionaletarako urratsa eman zuen Banesto taldearen eskutik (2001-2002) eta Lampre (2003-2008), De Rosa (2011) eta Utensilnor Named (2012) taldeetan aritu zen. 2006a izan zen Patxi Vilaren urterik onena, orduan irabazi baitzuen Paris-Niza lasterketako hirugarren etapa eta bigarren izan zen sailkapen orokorrean. Gainera, urte hartan berderatzigarren izan zen Italiako Giroaren sailkapen orokorrean.

Omenaldi ekitaldiak ortziral arratsean abia-



UTZITAKO ARGAZKIA
Patxi Vila joan den urteko Euskal Herriko Itzuliko Ibardingo maldan goiti erasoan, zaleen animoen artean.

tu ziren Kultur Etxean, bideo emanaldiarekin, solasaldi-mahainguruekin eta argazki erakusketarekin. Larunbatean txirrindularitza martxa izan zen eta Patxi Vila ere bertan izan zen, tropel profesionaleko bere zenbait adiskidarekin batera. Zalain jatetxeko herri bazkariarekin bukatu ziren omenaldi ekitaldiak.



UTZITAKO ARGAZKIA
Irteerako kontrolean CC Beratarako mailotarekin sinatu zuenean.

ERREMONTA → APIRILAREN 6AN JOKATUKO DA FINALA

Oraingo eta etorkizuneko izarrak ari dira Sagardoaren txapelketan

9 bikote ari dira eta apirilaren 6an jokatuko da finala

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 16an hasi zen erremonteko Sagardoaren Txapelketa Hernaniko Galarreta pilotalekuan. Hirugarren edizioa bete duen txapelketa antolatzeak Hernani eta Astigarragako zortzi sagardotegiren babesa izan dute. Bertzela elkarrekin gutxitan ikusten diren bederatzik bikote ari dira, gaur egungo izarrak eta etorkizunekoak nahasiz. Kike Elizalde antolatzailerak aurkezpen egunean adierazi zuenez «bikoteak horrela sortuta, etorkizuneko jokalariei estelarretan jokatzeak aukera eman zaie».

TXAPELKETA SISTEMA

Bederatzik bikoteak bi taldetan banatuta ari dira: A taldean lau bikote



ARGAZKIAK: MAIALEN ANDRES

Txapelketan ari diren pilotarietako batzuk, aurkezpenean.

eta B taldean bost. Denek denen aurka jokatuko dute eta talde bakoitzeko lehenengo bi sailkatuak finalurrekoetan izanen dira. A multzoan, Koteto Ezkurra doneztebarra eta Andoni Saldias oiztarrak osatzen dute bikote bat; Aritz Zubiri goizuetarrak Urriza txapelduna du lagun aitzineko koadroetan. Gorka Urtaşun iruritarra Doneztebeko Iñaki Lizasorekin ari da eta

eskualdeko pilotaririk izanen ez duen bikote bakarra Etxeberria IV eta Jonek osatuko dute.

B multzoan, joan den urtean Oñatzekin batera txapeldun izan zen Julen San Miguel doneztebarrak Josetxo Ezkurra II, herriko hasiberria du lagun aurten. Endika saldiastarra Barrenetxea IVarekin ari da eta Joxe Etxeberria III doneztebarrak Matxin III du aurrelari. Zeberio

II eta Urko, eta Juaristi eta Agirrezabalak osatzen dute boskotea.

Martxoaren 28an jokatuko da lehenbiziko finalerdia. A taldeko lehena B taldeko bigarrenaren aurka arituko da. Martxoaren 30ean izanen da bigarren semifinala, B taldeko lehena A taldeko bigarrenaren aurka jokatu beharko du. Irabazleek apirilaren 6an jokatuko dute finala Galarretan.

HARRI JASOTZEA

300 kiloko erronka gainditu du Inaxio Perurenak

TTIPI-TTAPA

300 kiloko harria bizkarreratuta, aspaldian gainean zerman zama kentzea lortu du Inaxio Perurenak. Otsailaren 10ean, Leitzako Amazabal pilotalekuan, herritarren babesean lortu zuen erronka. 17,80 segundo behar izan zituen. Gerrira jaso, bulerrera goratu, han hiru bote egin eta berdintzea lortu zuen. Bigarren jasaldi ere egin nahi izan zuen, baina ezin izan zuen. Pozik agertu zen lortutakoarekin, «Konfiantza galtzen eta beldurtzen hasita nengoen» aitortu zuen. 300 kilokoen multzoan sartu da jada Inaxio Perurena, Iñaki Otaegi Gibitegi, Iñaki Perurena eta Mieltxo Saralegirekin batera. Orain, laster itzuli nahiko luke plazara, beste koska txiki bat igotzeko.



TXIRRINDULARITZA

Bidasoa Master taldea berriz lanean

TTIPI-TTAPA

Hasi da 2013ko txirrindularitza denboraldia master mailan eta Transportes Bidasoa-Euromaster-Inurrieta taldeko txirrindulariak Laudio eta Artziniegako laisterketetara hurbildu ziren otsailaren 16 eta 17an. Beti bezala leihakor aritu ziren eta Laudio puntu puntuan egon ziren laister-

keta hankaz goiti paratzeko. Dena dela ere talde lan onari esker lon Zeberio elizondarrak, senior mailan, bi laisterketetan lehen postuan akitu zuen. Mikel Arburua (Igantzi), Ibon eta Jabi Urriaga (Betelu), Riki Martinez (Funes) eta Txutxin Fernandez (Urduña) taldekideen lana borobildu zuen.



UTZITAKO ARGAZKIA

lon Zeberio elizondarra, Laudioko podiumean.

otsailak 28 - martxoak 14

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Ospakizunak



SUNBILLA | 2013.03.09

Kantu Zaharren bigarren Eguna Ariztigain kanpinean

Bazkaria, bazkal aitzineko eta ondoko kantuak, afari-berendua eta kantu zahar gehiago... Bigarren urtez eginen dute Kantu Zaharren Eguna Ariztigainen.

Bertsoak



ELIZONDO | 2013.03.09

Nafarroako txapelketako azken finalaurrekoa Lur aretoan

Atarrabia eta Etxarri Aranazko saioen ondotik, Lur aretoan erabakiko dira azken finalistak: Luze, Zelaieta, Karrika, Lakuntza, Maia eta Alkaiza ariko dira.

Kontzertuak



SARA | 2013.03.02

Italiako Dama eta Lekarozko Su Etena Sarako Urtxolan

Metal-pop gotikoa egiten duen Dama Italiako taldea eta Lekarozko Su-Etena. Biak adituzko aukera izanen da larunbat gauean Urtxolan.

Mus txapelketak**Eskualdeko komunikabideen alde**

ORONOZ

Martxoaren 8an

Gaztelunea elkartean (20:00).

BERA

Martxoaren 9an Erre-

kalde ostatuan

(16:00).

Ospakizunak

AMAIUR-ELIZONDO

Korrika besta**Martxoaren 2an**

Amaiurren gosaria, bizikleta martxa Amaiurtik Elizondora. Bazkaria. Bertso eta fanfarre poteoa. Kontzertuak Gaztetxean. Baztango Korrika Batzordeak antolatua.

EZZURRA

Malerreka kantuz

Martxoaren 2an Malerrekako Euskara Batzordeak antolatutako kantu ekimenaren saio berri bat, 12:00etan Ezkurrako plazatik abiatuta.

BERA

Espainiako Gerran desagertuak gogoan

Martxoaren 3an omenaldi ekitaldiak. Xehetasunak 11. orri-an.

ELIZONDO

Emakumeen**Nazioarteko Eguna****Martxoaren 8an**

Arizkunenean pelikula. 18:00-20:00 sexualitate tailerra Gaztetxean. 21:00etan afaria Bide-lagunen egoitzan. Antolatzailea: Eguzkilore elkarte.

Martxoaren 9an

bazkaria 14:00etan. 19:00etan kalejira mo-zorroekin. 23:00etan kontzertuak eta DJak Gaztetxean.

Erakusketak

LEKAROZ

Baztandarren**Biltzarren 50. urtemugako argazkiak****Martxoaren 2 eta**

3an Baztandarren Biltzarren 50. urtemugako argazkien erakusketa Lekarozko eskolan.

LEITZA

Emakumearen Eguna**Martxoaren 1etik**

15era Emakumeak eskubideen alde zutik! Nikaraguako emakumeak argazki erakusketa ikusgai Torren. Nugarik Gabe elkarteko emakume taldeak egina..

Kontzertuak

ELIZONDO

AIN-1 taldearen**kantaldia****Martxoaren 10ean**

emakumez osatutako AIN-1 taldeak folk akustiko kontzertua (musika, poesia eta dantza) eskainiko du 19:00etan Arizkunenean, Baztango Kultura Batzordeak eta Berdintasun Batzordeak antolatuta.

SARA

Dama eta Su Etena Urtxolan**Martxoaren 2an**

gauez kontzertuak izanen dira Urtxolan. Talde gonbidatuak Dama (Italiako metal-pop) eta Lekarozko Su Etena.

Azokak

ELIZONDO

Aukeren Azoka**Martxoaren 2 eta**

3an antolatu du Bertan Merkatarien Elkar-teak.

SARA

Josketa eta eskulan merkatua**Martxoaren 10ean**

Lur Berrin antolatu du Eskuen Lana elkarteak, 10:00etatik 19:00etara.

Solasaldiak

URDAZUBI

Guraso Eskola

Martxoaren 4an Guraso Eskolako eskaintzaren baitan, Nahia Psikoterapia Zentroaren saioa 17:00etatik aitzinera eskolan.

BERA

Espainiako Gerran desagertuak gogoan

Otsailaren 28an *Exhumando fosas, recuperando dignidades* solasaldia eskainiko du Aranzadiko Jimi Jimenezek 19:30ean Beralandetan.

Emakumearen Astea

Martxoaren 4an *Genero ikuspegia, bidaia kazetaritza aberasteko tresna* solasaldia eskainiko du Ander Izagirrek 18:00etan Beralandetan.

PROPOSAMENA

ESKUALDEA

Emakumearen Eguna ekitaldiz betea

Martxoaren 8ko nazioarteko egunaren harira mendi irteera Bortzirietan, filma eta dokumental emanaldiak han eta hemen, Nikaraguako emakumei buruzko argazki erakusketa Leitza, solasaldiak, sexualitate tailerak, bazkariak eta afariak Baztanen, elkarretaratzeak eta bertze hainbat ekitaldi antolatu dira eskualde osoan.



SUNBILLA

Kantu Zaharren II. Eguna kanpinean

Martxoaren 9an Kantu Zaharren Eguna antolatu dute bigarren urtez Aritzigain kanpinean. Xehetasunak 17. orrian.

Dantzak

Escena jaialdia

BERA

Martxoaren 9an Fuedadeleje taldearen *Because we love* dantza emanaldia 20:00etan Kultur Etxean.

Inauteriak

SALDIAS

Azkeneko harat-honatak

Martxoaren 8 eta 9an eginen dute gazteek ethez etheko eskea. Xehetasunak 27. orrian.

Bertsolaritza

ELIZONDO

Nafarroako txapelketaren azken finalaurrekoa

Martxoaren 9an jokatuko da Lur aretoan, 17:30ean. Migel Mari Elozegi *Luze*, Julen Zelaieta, Aimar Karrika, Oier Lakuntza, Xabi Maia eta Saioa Alkaiza.

Zinema

LEITZA

Denboraldi bukaera

Martxoaren 1 eta 3an *César debe morir* filma ikusgai. Ostiralean 22:30ean eta igandean eta 19:30ean. Sarrera: 6 euro.

Emakumearen Eguna

Martxoaren 6an *Emakumeak plazan* dokumentala ikusgai udaletxean. Ondotik solasaldia Arantxa Gurmendi egilearekin.

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Urtebetetze festa

CASTILLO SUAREZ

Elkar, 2013

Castillo Suarez poeta altsasuarra aurrerapauso bat eman du liburu berri honetan. Aurreko bildumen ildotik (Spam poemak, Bala huts bat, Souvenir), esandakoaren eta esan gabekoaren arteko kontrastearekin jokatzeko du, polisemiak bereriko mezu irekiak erabiltzen, ironia-karga handia duten esaldi biribilak botatzen. Lirismo itzurazkoari ihes egiten dio Suarezek, lerro ebakien teknikari ere uko eginez, poetikotasuna barrurago, sakonago ezkutatzeko den zerbait dela frogatuz.

Musika



Zazpi kantoietan

GATIBU

Baga-biga musika ideiak, 2012

Gatibu taldearen ideia Alex Sardui eta Haimar Anejita musikariena da. Mikel Caballero eta Gaizka Salazar batu zitzaizkien proiektura Gernikako taldeari. Hori 2002an gertatu zen. Bi urtetik behin diskoa argitaratuz bosgarrenera iritsi dira. Guztira 40 kantu berri eta interesgarri, bikain eta gogoangarriak. Orain zazpirekin datozkigu *Zazpi kantoietan* diskan. Gatibu taldearen kantuek, hasiera hasieratik, abestien bat-batekotasuna eta single izaera garbia dute. Rocka zazpi kantoietara bideratuta, mundura. Gorputzaren zazpi kantoiek ere jasoko dute bere musika dosia. Rock indartsua, batukada zitzada, balada hunkigarriak, rock biluzi eta akustikoa, bluesa, rock gogorra, punte-oak, baina rocka bere hitz guztiekin, rock and rolla. Bihotza sutan zuten, dute eta izanen dute une bakoitzean. Gatibu taldeak bihotza sutan jarri dio beti jendeari eta Gatibu taldeaz maitemintzea lortu du, jendea musikaz gatibatzea.

Internet



Euskal Herriko irudi digitalak klik batean

3DIGITALA.COM

Euskomedia Fundazioa eta Eusko Ikaskuntzaren 3digitala.com webguneak Euskal Herriko argazki bilduma zabala eskaintzen du: 43.783 irudi, zehazki, une honetan. Artxibo zabal honetan ikusmiratzeak euskal paisaietan, historian eta kultur ondarean bidaia birtuala egiteko aukera eskaintzen du, mundu osoko erabiltzaileen eskura. Horrez gain, argazki bat bereziko atsegin dutenentzako irudia erosi eta inprimatzeko aukera ere ematen du webguneak. Publizista, argitaletxe zein ikus-entzutezko ekoizleei zuzenduta dago. Hala ere, webguneak Euskal Herriari buruzko irudi artxibo zinez zabala eskaintzen du, eta mundu osoko euskaltzaleentzako ere interesgarria izan daiteke. Bildumak egileen arabera, gaiaren arabera edo kokapenaren arabera araka daitezke. Erraterako, Nafarroako 17.790 argazki ikus daitezke, herriko antolatuak.

DONEZTEBE

Zinema denboraldia

Martxoaren 10ean *Campanilla: El secreto de las hadas* filma ikusgai 16:30ean eta *Lo imposible* 18:30ean.

IGANTZI

Zinema euskaraz

Martxoaren 3an *Nómada TX* filma ikusgai 19:30ean eskolan.

BERA

Espainiako Gerran desagertuak gogoan

Martxoaren 2an *Los caminos de la memoria* filma eskainiko 19:30ean Kultur Etxean.

Mendi ateraldiak

BAZTAN

Baztango Mendigoizaleak

Martxoaren 3an Elizondo-Belaun-Alba-Urballo-Parisenea-Elizondo ateraldia eginen dute Baztango Mendigoizaleek (08:00).

Martxoaren 10ean Erratzu-Izpegi-Ziraleko borda-Trenpeta-Urrizpilota-Elorta-Olate-Izpegi-Erratzu ateraldia eginen dute Baztango Mendigoizaleek (08:00)

ETXALAR

Bortzirietako emakumeen IV. Mendi Itzulia

Martxoaren 10ean Etxalarko Zentinelara igoko dira (09:00), herri sarrerako apartekalekutik abiatuta. 13:00etan elkarretaratzea plazan eta gero, bazkaria Etxalarko Herriko Ostatuan. 18:00etan *Emakumeak mendian ere bai* Mentxu Peñaren proiektioa Kultur Etxean.

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONOZ-MUGAIRI.

Etxebizitza salgai, mobleztatua dago. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 16 milio pezeta/100.000 euro. ☎948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lur sailarekin.

DONEZTEBE

- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

- Herri erdigunean ostatua errentan ematen da, terraza barne. Egoera oso onean dago.

Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

LESAKA. 66 m²ko pisua salgai herri erdian. 2 trasteleku, garajea eta igogailuarekin. Berri berria. Prezio negoziagarria. ☎657 708866.

ERATSUN. Hiru borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

BERA. Pisua salgai Bera herriko plazatik hurbil. 3 logela, 2 bainugela, balkoia, terraza eta trastelekuarekin. ☎653 018955.

BERA. Pisu polita salgai. Kanpora ematen du eta handia da. Berokuntza sistema zentrala. 3 logela, 2 bainugela, sukalde eta egongela. Terraza handia. Prezio onean. ☎650 981950.

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA **ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€** IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

LESAKA. Herriko plazan 83 m²ko etxebizitza berria salgai. Oso argitsua da. Sukaldea mobleztatua du, 2 logela, 2 bainugela eta igogailuarekin. ☎656 721840.

ERRETERIA. Bi logelako etxebizitza salgai, mobleztatua. Oso argitsua, bi balkoi eder ditu, batek egongela eta logelak lotzen ditu. Kokapen paregabea, tren eta autobus geltokietatik hurbil. Deitu beldurrik gabe! ☎636 377376

DONEZTEBE. Bi logelako pisua salgai. Berogailu eta trasteleku haundiarekin. Prezioa: 105.000 euro. ☎943 246456.



IGANTZI. 70m²ko pisua

salgai edo errentan ematen da erosteko aukerarekin. 2 logela, bainugela, kalefakzioa, balkoia eta garajea. Mobleztatua eta ikuspegi ederrak. ☎600 430988.

**ETXEBIZITZAK**
errentan emateko

LESAKA. Bittiri kalean 90 metro²ko pisua errentan ematen da. Sukalde haundia, egongela, 3 logela, komuna, trastelekua eta bi balkoi eder ditu. Bizitzera sartzeko prestatua dago. ☎636 11602/☎ 639 855284.

LESAKA. Herri erdian etxebizitza errentan ematen da. Pertsona bat edo bi bizitzeko egokia. ☎675 714360.

BERA. Askain karrikan pisua errentan ematen da. 3 logela, egongela, bainugela eta komuna ditu. Igogailua eta berogailuarekin. Interesatuak deitu 17:00etatik aurrera mesedez. ☎628 512905.

ELIZONDO. Etxebizitza errentan ematen da herriaren erdialdean. Guztia mobleztatua, berogailu, igogailu eta trastelekuarekin. 2 logela, bainugela, sukaldea eta egongela. Oso argitsua. ☎948 637283.

ETXEBIZITZAK
errentan hartzeko

LESAKA. Emakumezko batek etxebizitza errentan hartuko luke, bi logelakoa nahikoa. Hilabetean 300-400 euro ordaintzeko prest. ☎646 502239.

GARAJEAK/LOKALAK**errentan emateko**

LESAKA. Bi lur azpiko garaje errentan ematen dira, bat Eltzeta plazan eta bestea Albistur karrikan. ☎618 962937.

LANA**eskariak**

Arkitekturako ikaslea asteburuetan DBH eta Batxilergo mailako klase partikularrak emateko prest. ☎680 187344.

MALERREKA-BAZTAN. Emakumezkoa eskaintzen da etxeko lanak egin, haurrak edota adinekoko zaintzeko. ☎948 450575.

ELIZONDO. Josten daki emakumezkoak bere burua eskaintzen du hainbat lanetarako: arropa arregioak, garbiketa edo sukalde laguntzaile. ☎658 454419.

Sukaldeburu bezala esperientzia duen **sukaldariak** lanaldi osoan edo extra bezala lan egingo luke. ☎948634010/☎667 858965.

ELIZONDO. Gizonezkoa baserri lanetarako eskaintzen da, esperientziaduna. ☎626 453893.

ANIMALIAK
salerosketak

60 ardi latxa salgai. ☎667 252373.

Border Collie arrazako zakurkumea hartuko nuke. Arra. ☎618 779968.

Behi deretxoak salgai. ☎948 610728.

Border Collie arrazako bi txakurkume salgai.

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(Otsailaren 8tik 15era bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 51 €

Zerri gizena
1,334 € kilo. (+0,031)

Zerramak:
0,830€ Kg/bizirik. (+0,01)

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,13

1.koa 3,87

2.koa 3,71

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,34

1.koa 4,06

2.koa 3,92

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruxak 150,00

idixkoak 210,00

Aretze nabarrak:

urruxak 130,00

idixkoak 165,00

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,00/3,10

Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 5,70/5,80

8-10 kilokoak: 4,60/5,30

Arrak eta hiru koloreko-
ak dira. 100 euro. ☎626
831890.

ANIMALIAK

oparitzeko

3 hilabeteko **artzai txakurkumea** oparitzen da.
☎690 906004.

MOTORRAK

salgai

Nissan Almera Tino 1.8 monobolumena salgai. 5 atekoa. Gasolina. 2005 urtekoa. 65.000 km. Arras ongi zaindua. ☎628 572273.

Audi A4 Avant automa-
tikoa salgai. 2009 urte-
koa. 67.000 km ditu. Oso
egoera onean. ☎699
949445.



Aisan markako **autoa**
salgai. Egoera onean.
2500 euro. ☎690 050903



ZERBITZUAK

denetarik

**Diana Iniesta Psikolo-
goa** kontsulta Erratzun,
etxez etxe edo internet
bidez. Interesatuak deitu
☎948453478ra edo idatzi
dianainiesta@hotmail.com
helbidera.

Yoga ikastaroak Beran.
Zure burua ondo ezagu-
tzeko ariketa desberdi-
nak: arnasketa, ariketa
fisikoa, erlajazioa, medi-
tazioa. 08:30-
10:00/19:00-20:30. (as-
tearte eta ortzegunetan).
☎627 395245.

DENETARIK

salerosketak

SUNBILLA. Su egurra

salgai, lotean edo xehe-
tua. ☎659 867287/ ☎699
461394.

ORONOZ. Egurra xehe-
tua salgai. Pagoa eta ha-
ritzta. Etxera eramaten da.
☎676 242520.



PIRRITX, PORROTX eta
MARIMOTOTX. 2013ko
apirilaren 13an Berako
Eztegara pilotalekuan
"sentitu, pentsatu, ekin"
emanaldia eskainiko du-

te. Laster, sarrerak salgai
jarriko dira. Etorri eta go-
zatu emanaldiaz!



Zeharkako flauta salgai.
☎675 714360.

Pianoa salgai. KAWAI
markakoa. Oso gutxi era-
bilua. Leku faltagatik ken-
du nahi da. Prezio nego-
ziagarria. ☎616 791043.

Traktore orga bat nahi
nuke 18-21 zaldi inguru-
koa. Pascuali edo Agria
markakoa. Direktzio eta
freno hidraulikoduna.

☎948 510242/ ☎644
226079.

Sukaldean edota saloian
jartzeko **pinuzkoa ma-
haia** bere **lau aulkiekin**
salgai. Prezio negoziaga-
ria. ☎696 542056.



DENETARIK

galdu/aurkituak

Doneztebeko inauterie-
tan **gizonezko baten ka-
zadora** aurkitu dut, gal-
du duenak dei dezala
☎626312805 telefonora.



OSOKO BILKURAREN AKORDIOA - HIRIGINTZA -

Udaleko Osoko Bilkuraren akordioa, 2013ko urtarrilaren 15ekoa:
Udal Plan Orokorren aldaketa egituratzaila, Ibardinen Gorria
Benta inguruan (6. p., 1. eta 960. l.), hasiera batez onestea.

Espediente hau jendeaurrean izanen da hilabete batez, dagokien
iragarkia NAOn argitara ematen denetik (2013ko otsailaren 8a).

Bera, 2013.02.08
ALKATEA,
M^o Sol M. Taberna Iratzoki

AVIA

Zure kotxea garbitu!

Depositoa
beteta
kotxea
garbitzeko
fitxa 1€

**Depositoa
betez gero**

www.clubavia.es

**DONEZTEBEKO
GASOLINDEGIA**

GARBIKETA
1€

Leiza E. 49 • DONEZTEBE | 948 451 079 | www.doneztebe.com

AURREZTU BULEGOKO materialean



Koskontako bidea 7, 1 | LESAKA | 948 635 458
www.ttipi.net | www.kulturkari.com | kulturkari@ttipi.net

TXARTELAK

Kartulina berezia 400gr. + 2-alde
koloretan + BEZa barne

500 94€
bisita txartel



100 txartel **74€** 250 txartel **90€**
1000 txartel **116€**

urtebetetzeak

Argazki soilak: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,37€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txeketa; 4) www.ttipi.net bitartez



MARKELEK 3 urte bete ditu otsailaren 24an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partez.



IKER ALBAK urteak beteko ditu martxoaren 13an. Zorionak Iker!! Ondo ondo pasa eguna eta muxu pila pila!! Aitaxo eta Izaskunen partez.



Iruñeko UGUTZ ETXEBERRIA IRIGOIENEK 8 urte bete ditu otsailaren 24an. Zorionak atautxi eta amaxiren partez, martxo-so!



Legasako NAIARA MENDIBURU ANDRESENAK otsailaren 27an 6 urte bete ditu. Muxu eta besarka haundi bat Legasako familia guziaren partetik. haundi bat



Berako IKER IPARRAGIRRE IRIARTEK 7 urte beteko ditu martxoaren 4an. Zorionak Berako familiaren partez. Ongi pasa eguna eta muxu aunitz!



IRATXE LOIARTE PETRIKORENA igantziarrak bederatzirte bete ditu otsailaren 19an. Zorionak!



JANIRE URREAGA IBARRAK urtea beteko du martxoaren 5ean, Zorionak eta muxu haundi bat familia guziaren partetik!

↑ **hemen agertu nahi duzu?**
eguzki zura erabakitzeko
www.ttipi.net

4 **urte** **4** **urte** **8** **urte**

xorroxin, xaloa eta ttipi-ttaparen aldeko mus txapelketa

milesker zuen laguntzagatik!!

BAZTAN	eguna	ordua
tokia		
ORONOZ (Gaztelunea Elkarte)	martxoak 8	20:00
AMAIUR (Gaztelu Elkarte)	martxoak 16	21:30
ELIZONDO (Falfarak Elkarte)	martxoak 16	16:30

BORTZIRIAK	eguna	ordua
tokia		
BERA (Errekalde Ostatur)	martxoak 9	16:00
LESACA (Arrano Elkarte)	martxoak 15	22:30

MALERREKA	eguna	ordua
tokia		
AURTIZ-ITUREN (Aurtzko Elkarte)	martxoak 16	22:00
DONAMARIA (Herriko Ostatur)	martxoak 22	21:30
NARBARTE (Herriko Ostatur)	martxoak 23	-
LEGASA (Kattalin Aterpea)	martxoak 23	16:30
OITZ (Oizko Posada)	martxoak 23	-
SALDIAS (Ostatur)	martxoak 23	-

FINALA
Apirilaren 6an, 16:00etan
Sunbillako Ulibeltzak elkarte

Arroitzaleak:
XORROXIN IRRATIA
XALOA TELEBISTA
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUKIXU UDAL HAUR ESKOLAN

2013-2014 IKASTURTERAKO AURREMATRIKULA EGITEKO AUKERA ZABALIK !!!!!

MARTXOAREN 1etik 15era

Informazio gehiago:
Mukixu Udal Haur Eskolan
Eztegara pasealekua, 42
T./F. 948 631 656
31780 BERA
e-posta: mukixu@gmail.com

mundua zure esku dago



acQrn
Quality Language Learning

guk berarekin komunikatzen lagunduko dizugu

Atzerriko ikastaroek zure hizkuntza-gaitasunak hobetzen lagunduko dizute, zuk aukeratzen duzun hizkuntzan.

30 helmuga baino gehiago zure esperoan:

Inglaterra, Irlanda, Estatu Batuak, Kanada, Australia,
Hegoafrika, Malta, Frantzia, Suitza, Alemania, Italia,
Japonia, Txina eta Errusia

Nahiago duzu Londresen lan egin?
Badugu zuretzako moduko programa bat

Informa zaitez gure pack **BEREZI** eta **MEC BEKEI** buruz, baita sakela guztiarako egokilutako gure promozioei buruz ere.



www.acornlanguages.com



ttipi txartelarekin

beti irabazten da!

deskontuak + zozketak + aldizkaria musu truk

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

584. ALEKO IRABAZLEAK

- * ONDDO TA PUNTO KAMISETA
M^a Jesus Etuain | ITUREN
- * TXALAPARTA 3 LIBURU
Idoia Oteiza | ELIZONDO
- M^a Mercedes Sansiñena | URDAZUBI
- Arantxa Vicente | ETXALAR
- * PIRRITX, PORROT X ETA
MARIMOTOTS ZAZPIKOLORO CDa
Maite Etxenike | IRURITA
- * EREIN 2 LIBURU
Bittori Teletxea | BERA
- M^a Dolores Antxordoki | LESAKA
- * BERTSU DVD + M'C TXIRRITA CDa
Pedro Descarga | ERATSUN
- * URTXINTXA ESKOLA
tortoloxak CD + DVD
Izaskun Altxu | ITUREN

zozketak
ekar



3 LIBURU
Elkar argitaletxeak
www.elkar.com

AGUIRRE | DARRIGARTE
AQUARIUM



AQUARIUM 2 SARRERA
Donostiako Aquarium-a
www.aquariumss.com

deskontuak

L auto-eskola
BERA - LESAKA | %10 matrikulan

FANTXIKE

ELIZONDO
%10, 30€tik gorako gastuan

Amaia
rudi eta estilismo zentrua

DONEZTEBE | %5 kosmetikan %10
oparietan 50€tik gora. Promozioetan

Agara
kirolak

BERA | %5 kirol artikuluetan

oreka

nutrizioa dietetika
belardenda

LESAKA
%5 kontsulta eta produktuetan

jaione tindategia

DONEZTEBE
%10, 12€tik gorako gastuan



KIKE MORAREN diska
Baga Biga argitaletxeak
www.baga-biga.com



NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA
ELIZONDOKO FINALAURREKOA
2 SARRERA + 2 SARRERA
www.nafarroakobtxapelketa.com



BERTSU DVD + M'C TXIRRITA CDa
Lanku
www.lanku.com

urtxintxa
ESKOLA



PUNPALAPAN CD + DVD
Urtxintxa eskola
www.urtxintxa.org

ttipi-ttapa

Koskontako bidea 7, 31770 LESAKA
Tel. 948 635 458 - Fax 948 635 457
info@ttipi.net - www.ttipi.net